



2018ko AURREKONTU IREKIAK

HERRITARREK EGINDAKO EKARPENAK

Emaitzak





Txosten honetan, “Aurrekontu irekiak 2018” partaidetza prozesuaren emaitzak jasotzen dira. Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatu du prozesua, 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoaren esparruan. Lehentasunak herritarrekin kontrastatzeko lan hori 2017ko maiatzaren 2tik ekainaren 30era bitartean egin da, Kudeaketa Plan Estrategikoa osatzen duten bost helburu estrategikoetako baten barruan, plan horretan beharizan hau definitzen baita: “Gipuzkoako gobernuaren eraldatzea, herritarren partaidetzarako bide arinak irekitzeko”.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduketan gidatzen duen PDCA metodologiarekin (Plan- Do-Check-Act – Planifikatu-Egin-Egiaztatu-Ekin) bat etorritik, txosten hau fase baten amaiera da, 2018 ekitaldirako aurrekontuak modu irekian eta parte-hartzailean egitea ahalbidetuko duena. Lurralde Historikorako jardunbideen eta proiektu estrategikoen kudeaketan gizartearen partaidetza bultzatu nahi badugu, Foru Erakundearen eta herritarren arteko komunikazio eredu berria definitu behar da, gertutasuna, ezagutza eta gardentasuna sortuz.

Jarraian, partaidetza prozesuaren mugarrak eta lortutako emaitzak jarriko dira ikusgai. Horretarako, lehenik eta behin, Aurrekontu Irekiak 2018rako partaidetza prozesuaren testuingurua aztertuko dugu. Bigarrenik, prozesuaren analisia zer metodologia baliatuz bideratu den nabarmenduko dugu. Bertan aurkituko dugu dagokion fitxa. Hirugarrenik, lortutako emaitzak ikusiko ditugu, egin diren galderen arabera banatuta. Azkenik, zenbait ondorio aterako ditugu, eta Aldundiak Gipuzkoan partaidetzaren kultura eta Gobernu Irekiaren eredu berria finkatzeko hartu dituen konpromisoak ikusiko ditugu.

Txosten honetan jasotzen diren partaidetza prozesuaren emaitzak ateratzeko, azterlan sozial eta estatistikoei dagozkien kalitate estandarrak erabili dira. Hala, emaitzak egiazkoak eta fidagarriak direla bermatzen da, datuak zorrotz babesten dira eta anonimatuak nahiz konfidentzialtasuna zaintzen dira, Datuak Babesteko Euskal Agentziarekin eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin bat etorritik.



AURKIBIDEA

0. SARRERA p. 5

1. PARTAIDETZA TESTUINGURUAN: GIPUZKOA ETA AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK 2018 p. 7

- 1.1. GIPUZKOAN PARTAIDETZAREN KULTURAREN ALDE EGINEZ p. 7
- 1.2. ZEIN IZAN DA PARTAIDETZA PROZESUAREN EGUTEGIA? p. 9
- 1.3. PROZESUA GIZARTERATZEKO BIDEAK p. 10
 - 1.3.1. Komunikabideetan eta sare sozialetan zabaltzea p. 10
 - 1.3.2. Galdeketak atez ate banatzea p. 11
 - 1.3.3. Partaidetza birtuala p. 11
 - 1.3.4. Herriz Herri kanpaina p. 12
 - 1.3.5. Topaketa tematikoak entitateekin eta elkarteekin p. 14
- 1.4. ZER GALDETU ZAIE HERRITARREI? p. 15
- 1.5. ZER BERRIKUNTZA EKARRI DITU PARTAIDETZA PROZESU HONEK? p. 16

2. METODOLOGIA p. 17

- 2.1. PARTAIDETZA MAILAREN ANALISIA p. 17
- 2.2. EKARPENEN ANALISI IREKIA p. 17
- 2.3. PROIEKTUEN AUKERAKETARI BURUZKO ANALISIA p. 18
- 2.4. FITXA TEKNIKOAK p. 18

3. EMAITZAK p. 19

- 3.3. PARTAIDETZAREN EMAITZAK p. 19
 - 3.1.1. Partaidetza, generoaren arabera p. 19
 - 3.1.2. Partaidetza, adinaren arabera p. 19
 - 3.1.3. Jasotako ekarpenen kopurua p. 20
 - 3.1.4. Parte hartzeko aukeratutako bideak p. 20



3.2. PARTAIDETZA PROZESUAREN EMAITZAK p. 21

3.2.1. 1. galdera. Zer proposamen dituzu 2018ko Aurrekontuetarako? p. 21

3.2.2 2. galdera. Zein da zure ustez Gipuzkoako etorkizuneko erronka nagusia?
p. 40

3.2.3 3. galdera. Zer 3 arlotan nahiko zenuke Aldundiak inbertitzea? p. 42

4. ONDORIOAK p. 43

5. GIPUZKOAREKIN DUGUN KONPROMISOA p. 46



0. SARRERA

GIPUZKOAK Aurrekontu Irekien prozesu berri batean parte hartzeko deia egin die berriz ere herritarrei. Hala, Gobernu eredu berriaren adierazgarri, erreferentziazko Lurralde Historiko gisa finkatu da. Foru Administrazioan Gobernu Irekia finkatzeko beharrezkoa da herritarren eta haien ordezkarien artean konfiantza sortzea, kontu gardenak egitea, kontu emakida eraginkorra eta “garantista” egiten laguntzea, eta partaidetza prozesuak guztiontzat gobernatzeko modu berria ekarriko duen mekanismo gisa finkatzea.

Aurrekontu Irekiak 2018 partaidetza ekimena berriz ere formulatu da herritarrek modu irekian adierazi ahal izateko zer kezka, nahi, gomendio eta iradokizun dituzten 2018ko ekitaldiari begira. Gure herritarrak protagonista bihurtzeko, beharrezkoa da erantzukizun partekatua eta jarduketa egokia instituzionalizatzea, une honetan zalantzan jartzen baita erakundeen legitimitatea.

Mendebaldean gertatzen ari diren aldaketa sozialek Gipuzkoan ere eragina izan dute. Hori dela eta, inoiz baino beharrezkoagoa da gobernu parte-hartzailean eta herritarren partaidetzan aurrerapausoak ematea, etorkizuna guztion artean eraikitzeko. Ekimen honek hainbat onura ekarriko ditu, hala nola herritarren partaidetza sendotzea aldaketarako tresna gisa. Horrez gain, Lurralde Historikoaren aurrerapenean eta etorkizunean ere eragina izango du. 2015-2019 aldirako Gobernu Onaren estrategia ere norabide horretan doa, helburu hau izanik: “gobernatzeko moduak eraldatzea eta gobernu ona Gipuzkoako Foru Aldundiko nortasunaren ikur bihurtzea”.

Gipuzkoako Foru Aldundiko 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoak gobernu ireki eta parte-hartzailearen eredua proposatzen du. Pertsonak hartuko ditu oinarri, baita hauek ere:

- Lidergo eraldatzailea eta gainerako erakundeekin nahiz gizarte antolatuekin partekatuta.
- Partaidetza publikoa eta pribatua proiektu estrategikoei bultzada emateko.
- Herritarrekin eta lurraldeko gainerako eragile ekonomiko eta sozialekin une oro elkarreragina izatea eta erabakiak hartzea.
- Foru Aldundiko talde politikoek eta teknikoek partaidetza aktiboa eta protagonista izatea gobernuko ekintzen lehentasunen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, irmotasuna, erantzukizuna eta gardentasuna irizpide hartuta.

Hori dela eta, Aurrekontu Parte-hartzaileen ekimenak herri bokazioa du. Euskadiko Toki Erakundeen Lege berriak mugarri bat ezarri du. Hala, Euskadin proiektatu beharreko partaidetzaren eta gobernu berriaren arauak zehaztu dira. Gipuzkoa norabide horretan aurrerapausoak ematen ari



da, herritarren eta espazio publikoaren artean loturak indartuz, eta jarduketa politikoen balio kolektiboa bultzatzen. Hau da, herritarrek eta gizarte eragileek politika publikoen erabakietan eta garapenean murgildu behar dute, parte hartzeko eta komunikatzeko bide berriak irekitzeko, eta Foru Erakundearen lan metodoak nahiz kudeaketa sistemak hobetzearen eta modernizatzearen aldeko apustua eginez.

Herritarren partaidetza kudeaketa publikoan sartzeari lagungarria izango da konfiantza hori sortzeko; izan ere, gobernuak sendotu, politika publikoak legitimatu, gizarte aniztasuna integratu, gizartearen interesak agenda publikoan sartu, herritarrek bizitza publikoaren antolamendu prozesuetan murgildu, eta gizarte zibilaren eginkizuna sendotuko da.

Horrenbestez, Gipuzkoako Foru Aldundiak erronkari heldu dio, eta 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoan bere gain hartzen du garai berri honetarako beharrezkoa dela Gipuzkoako Foru Aldundi modernoa, eraginkorra, hurbila eta apala martxan jartzea eta finkatzea. Oinarrizko printzipio hauek izango ditu: akordioak bilatzea, lidergo partekatua, soiltasuna, gobernu ona eta entzuteko gaitasuna. Hala, jorratu beharreko lehentasunak identifikatzeko, eta konponbide eraginkorrak planifikatzeko nahiz martxan jartzeko gai izango da. Garai berri bat ausardiaz eta erabakitasunez jorrazteko lurraldea modernizatzeko ditugun erronka estrategiko nagusiak, eta elkarrekin lan egiteko Gipuzkoako etorkizunerako ilusioz beteriko proiektua eraiki ahal izateko, printzipio hauek oinarri hartuta: garapena, solidaritatea, kohesioa, partaidetza, erantzukizuna eta ongizatea.




1. PARTAIDETZA TESTUINGURUAN: GIPUZKOA ETA AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK 2018

1.1. GIPUZKOAN PARTAIDETZAREN KULTURAREN ALDE EGINEZ

Aurreko ekitaldian, Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzak (Gobernatzeko eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentua) Aurrekontu Irekiak 2017 partaidetza prozesua jarri zuen martxan. 1547 herritarrek hartu zuten parte, eta jardunbide politikoei lehentasuna emateko, proiektuak aukeratzeko eta Gipuzkoako Foru Aldundia osatzen duten departamentuei haien ekarpenak modu irekian helarazteko aukera izaten zuten. Ekimenak arrakasta izan zuen, aurreko ekitaldiekin alderatuta partaidetzak nabarmen gora egin zuelako (% 329,72 aurreko ekitaldiarekin alderatuta). Beraz, emaitzei ez ezik, prozesuari berari ere balioa eman behar diogu, Gipuzkoan partaidetzaren kultura eta Gobernu Irekia finkatzea izan baita helburua.

Helburu hori izanik, gure estrategian, harreman irekia izango dugu herritarrekin. Gainera, parte hartzeko eta komunikatzeko bide berriak irekiko ditugu. Hori dela eta, gure lurraldean partaidetza bultzatuko duten ekintzak, ekimenak eta prozesuak gauzatzea helburu izango duten lau ardatz ezarri dira.





HELBURUAK

Herritarren ekimenak entzun eta partaidetzako kultura sustatuko duten antolaketako egiturak martxan jartzea

Partaidetzako kultura gehiago eta kultura sendoagoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketarako alor eta eremu guztietan

Herritarrekin, erakunde sozialekin eta udalekin lankidetza hobea eta eraginkorragoa, ohikoa eta egonkorra erakustea ohiko praktikan

Herritarren partaidetza ulertzeko eta praktikatzeko gidaliburuak haien esku jartzea

Partaidetzako prozesuen garapenean eta praktikatzeko gidaliburuak haien esku jartzea

Aldundiaren eta herritarren artean informazio eta komunikazioko kanal erabilgarri eta eskuragarriak edukitzea


Azken batean, aurrekontu irekiak egitea xede duen partaidetza prozesua inplementatzeko, zuzenean eta gardentasunez sartu behar ditugu gure herritarrak Lurralde Historikoaren kudeaketan. Ildo horretan, herritarren partaidetzak askotariko aukerak eta onurak ematen ditu, eta, horien bidez, Foru Aldundi modernoa, eraginkorra, gardena, eta batez ere herritarrekiko hurbila bultzatzen da. Horrenbestez, prozesu honek aurrekoaren lorratz berberari jarraituko dio, helburu hauekin:

- ▲ Herritarrak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkartzea, haien eginkizunaren eta kudeaketaren berri emanez.
- ▲ Gure herritarrek dituzten lehentasunak eta beharrianak ezagutzea, eta guztion eskariei dagozkien konponbideak ematea.
- ▲ Gipuzkoako egunerokotasunean, gizartearen protagonismo aktiboa bultzatzea, herritarrak lurraldeko bizitza publikoaren ikusle hutsak izan ez daitezen.
- ▲ Foru Aldundi efikaza, zentzuzkoa, eraginkorra eta gardena finkatzea kudeaketa publikoan, eta horretarako, herritar ahaldunduak izatea.
- ▲ Hausnarketa aktiborako, eztabaidarako eta solidaritaterako kanalak irekitzea, herritarren eta Foru Aldundiaren arteko elkarriketa eta komunikazioa hobetu ahal izateko.
- ▲ Aurrekontu irekiak onartzea, herritarrek, ordezkari politikoek eta langile teknikoek egiaztatutakoak.

1.2. ZEIN IZAN DA PARTAIDETZA PROZESUAREN EGUTEGIA?

2017ko Aurrekontu Parte-hartzaileak 2017 herritarrei itzultzeko prozesua amaitu ondoren, Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzak aurtengo partaidetza ekimena martxan jartzeko behar den makineria guztia mugituko du. Lurraldearen neurriak kontuan hartuta, proiektu honek planifikazio handia eta zehaztasun maila handia behar du, eta ekimena gizarteratu eta koordinatu egin behar da.

Partaidetza prozesuaren egutegia hainbat fasetan laburbildu daiteke. Martxoan hasten da planifikazioa, eta aurrekontu irekiak onartzen direnean amaitzen da, herritarrekin abenduko Batzar Nagusietan egiaztatuta.



Gipuzkoako Foru Aldundiak ekitaldi honetan irizpide nahikoak izango ditu lurraldeko herritarrek aurrekontuei buruz duten ikuspegia egiaztatzeko, eta jarduketa politikorako ildoak garatzeko; hau da, Aldundiak dagozkion politiketarako erabiltzen duen aurrekontua.

Berriz ere aipatu behar da Aurrekontu Irekiak 2018 gauzatzeko, partaidetza prozesu landua eta garantista baliatuko dela. Foru Erakundearen partaidetzarako atarian zehazten den bezala, herritarrekin komunikatzeko eta publizitate aktiboa egiteko estrategia ezarri da. Era berean, epe jakin batzuk ezarri dira Lurralde Historikoak dituen beharrezanean erantzuteko. Hala, prozesuak modu integralean eman die erantzuna proposatutako ekimenei, koherentzia eta gardentasun handiagoa emanez. Horretarako, aurrez aurreko kanalak eta herritarren arretarako eta partaidetzarako kanal birtualak jarri dira eskura.

Era berean, nabarmentzekoa da herritarrentzat interesgarriak diren eta egunez egun haiengan eragina duten hainbat proiektu eta ekimen martxan jarri direla, benetako beharrezanean bat



datorren metodologia pixkanaka egokitu dela, eta hobetzeko hainbat irizpide proposatuko direla herritarren partaidetzarekin eta ahalduntzearekin lotuta.

1.3. PROZESUA GIZARTERATZEKO BIDEAK

Komunikatzeko estrategia bide hauen bitartez egituratu da. Hala, prozesua zabaltzea, hedatzea eta gizarteratzea bermatu da.

- Komunikabideetan eta sare sozialetan zabaltzea**
- Galdetegiak etxez etxe bidaltzea**
- Partaidetza birtuala**
- Herriz Herri kanpaina**
- Topaketa tematikoak entitateekin eta elkarteekin (Topaketak)**

1.3.1. KOMUNIKABIDEETAN ETA SARE SOZIALETAN ZABALTZEA

Aurrekontu irekien prozesua prentsurrekoan aurkeztu zuen Imanol Lasa Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko foru diputatuak, 2017ko maiatzaren 2an. Hala, hasiera eman zion partaidetza prozesuari. Aurkezpen horrek oihartzuna izan zuen prentsan (Gipuzkoan), eta prozesuaren inguruko hainbat xehetasun eman ziren:

- Nola parte hartu, eta zer galdera egiten diren.
- Lurralde osoan, 310.000 galdetegi baino gehiago banatu zituzten.
- Prozesurako diseinatutako mapa aurkeztu zuten. Foru Departamenduen kudeaketaren inguruko emaitzak, kopuruak, datuak eta proiektu nagusiak hartzen ditu barne.
- Karpen egutegia, aurrez aurre parte hartu nahi duten herritar guztientzat.
- Prozesu horrek zer berrikuntza ekarri dituen, arreta berezia jarrita parte-hartze birtualerako egindako hobekuntzetan eta egokitzapenetan.

Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikaziorako Departamentuak eta Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzak prozesua era aktiboan gizarteratzearen aldeko apustua egin dute. Horretarako, prentsan, irratian eta sare sozialetan zabaltzeko ekimena. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Facebook eta Twitter kanalen bidez, prozesu birala izatea bultzatu dute (#AurrekontuIrekiak traol-hitza erabili dute).



1.3.2. GALDETEGIAK ETA MAPAK ETXEZ ETXE BIDALTZEA

310.000 galdetegi baino gehiago banatu dituzte Gipuzkoako etxeetan. Gidaliburu horietan, partaidetza bultzatzeko galderak ez ezik, Gipuzkoako Foru Aldundiko ekintza garrantzitsuenei buruzko informazioa jaso da laburbilduta. Gipuzkoako etxe guztietara Aurrekontu Irekiak 2018ren eskuliburua banatzeari esker, prozesu honen partaidetza demokratizatu da. Gainera, lurralde osoan zabaltzen laguntzen du. Horrez gain, telefono bidezko etengabeko linea prestatu zuten, edozein herritarri laguntzeko eta prozesuaren inguruan zituzten zalantzak argitzeko, edota martxan jarritako gizarteratzeko kanpainaren inguruan sor zitekeen beste edozein gertakizunetarako.

Galdetegian zehazten den bezala, parte hartu nahi izan duten herritar guztiek kanal horien bidez haien galdetegiak bidaltzeko aukera izan dute, maiatzaren 2tik ekainaren 30era bitartean:

- Partaidetza karpetan prestatutako kutxak erabili dituzte. 38 herritan jarri dituzte.
- Online, [gipuzkoa.eus/irekia/partaidetza](https://www.gipuzkoa.eus/irekia/partaidetza) webgunean.
- Foru Aldundiko Erregistroan eta Tokiko Erregistro Publikoetan
- Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitzan (Gipuzkoa plaza, Donostia).

Galdetegiarekin batera, 2017. urtean Gipuzkoako Foru Aldundia osatzen duten Departamentuek martxan jarritako jardunbideak eta inbertsio estrategikoak azaltzeko mapa bidali zuten etxez etxe. Horrez gain, 2017ko Foru Aurrekontuen esparruan diru-sarrerak egiteko eta gastuak bideratzeko askotariko bideak azaltzeko infograma ere egin zuten. Kasu honetan, pedagogia egin da, eta tresna bisual funtzionalak eta eskuragarriak erabili dira bildutako diruaren jatorria eta hainbat politikarako erabiltzen diren partidak ikusarazteko. Hala, herritarrak gardentasunez eta modu garantistan ahaldundu dira.

1.3.3. PARTAIDETZA BIRTUALA

Aurrez aurre parte hartzeko kanalen osagarri gisa, berriz ere gaitu da <https://www.gipuzkoa.eus/es/web/partaidetza/> webgunea. Bertan, prozesuaren inguruko galdetegia eta informazio xehatua jasotzen dira. Gure gizartearen egunerokotasunean tresna teknologikoek eta birtualek duten garrantzia aintzat hartuta, ezinbestekoa da teknologia berrien bidez partaidetzarako aukera ematea, arin, erraz eta azkar helarazteko bilatzen ari garen informazioa, eta, horrenbestez, parte hartzeko ohiko kanalez gain beste aukera batzuk ahalbidetzeko.



1.3.4. HERRIZ HERRI KANPAINA

Herriz Herri kanpaina prozesuaren mekanismo giltzarrietako bat da. Oraingo honetan, nabarmen areagotu da partaidetza karpak erabili dituzten herrien kopurua. Horietan, herritarrek prozesuaren inguruko informazioa eskuratu ahal izan dute, eta parte hartzeko nahiz haien zalantzak argitzeko aukera izan dute. Zehazki, 38 udalerrri txiki, ertain eta handitan jarri dituzte partaidetzarako karpak, eta 10:00etatik 19:00etara bitartean egon dira erabilgarri, etenik gabe.

Hala, herrien kopurua nabarmen areagotu da, iazko partaidetza ekimenarekin alderatuta (16 herri). Beraz, lurralde osoan aurrez aurreko partaidetza bermatu ahal izan da. Kualifikatutako hiru dinamizatzailerik dira karpak bideratzen, eta, horien bidez, galdera hauek egin zizkieten prozesuan interesa izan duten herritarrei:

- ➔ Zer diren Gipuzkoako Foru Aldundiko aurrekontuak.
- ➔ Zergatik aukeratu diren data horiek partaidetza prozesua martxan jartzeko.
- ➔ Zer garrantzi ematen zaion herritarrekin egiaztatutako aurrekontuen ekimenari.
- ➔ Zer kanal prestatu dituzten partaidetza eraginkor izan dadin.
- ➔ Herritarrek prozesuaren inguruan izan dituzten zalantzak argitu ziren.
- ➔ Laguntza eman zitzaizkien galdetegian proposatzen ziren ariketak egiteko.
- ➔ Herritarrek animatu zituzten egiaztatzeko prozesu aberasgarrian eta irekian parte hartzera.

Jarraian, 40 egunetan partaidetza aktiborako karpak zer udalerritan (guztira, 38) jarri ziren zehaztuko dugu. Era berean, toki erakundeetan eginiko bisiten datak eta herriak gogorarazten dira. Kasu honetan, gogorarazi behar da Foru Aldundiak harrera egiteko eta udalerrri eta geografia eremu guztietara iristeko konpromisoa duela, eta biztanleen kopurua ez dela kategoria baztertzailerik izan.

DATA	HERRIALDEA	LEKUA	BIZTANLEAK
2017/5/2	Urnieta	<i>Udaletxeko plaza</i>	6.247
2017/5/3	Donostia	<i>Katalunia plaza</i>	186.064
2017/5/4	Donostia	<i>Gaskoinia plaza</i>	186.064
2017/5/5	Donostia	<i>San Martin kalea</i>	186.064
2017/5/8	Hernani	<i>Plaza Berria</i>	19.712
2017/5/9	Oiartzun	<i>Udaletxeko plaza</i>	10.175
2017/5/10	Pasaia	<i>Euskadi Etorbidea</i>	16.207
2017/5/11	Irun	<i>Ensantxe plaza</i>	61.608
2017/5/12	Astigarraga	<i>Foru Enparantzan</i>	5.880



DATA	HERRIALDEA	LEKUA	BIZTANLEAK
2017/5/15	Andoain	<i>Goiko plaza</i>	14.613
2017/5/16	Orio	<i>Herriko plaza</i>	5.851
2017/5/17	Getaria	<i>Herriko frontoia</i>	2.818
2017/5/18	Azkoitia	<i>Herriko plaza</i>	11.587
2017/5/19	Zarautz	<i>Lege Zaharren enparantza</i>	23.117
2017/5/22	Azpeitia	<i>Enparantza Nagusia</i>	14.666
2017/5/23	Zumaia	<i>Eusebio Gurrutxaga plaza</i>	9.840
2017/5/24	Deba	<i>Foruen plaza</i>	5.480
2017/5/25	Eibar	<i>Untzaga plaza</i>	27.380
2017/5/26	Elgoibar	<i>Foru enparantzan</i>	11.594
2017/5/29	Mutriku	<i>Txurruka plaza</i>	5.329
2017/5/30	Mendaro	<i>Herriko enparantza</i>	2.031
2017/5/31	Aretxabaleta	<i>Herriko plaza</i>	6.993
2017/6/1	Antzuola	<i>Herriko plaza</i>	2.176
2017/6/2	Arrasate	<i>Biteri plaza</i>	21.987
2017/6/6	Eskoriatza	<i>Fernando Eskoriatza plaza</i>	4.080
2017/6/7	Segura	<i>Juan Deuna plaza</i>	1.472
2017/6/8	Urretxu	<i>Iparragirre plaza</i>	6.805
2017/6/9	Beasain	<i>Zubimusu plaza</i>	13.949
2017/6/12	Zegama	<i>Jose Maiora plaza</i>	1.514
2017/6/13	Zaldibia	<i>Santa Fe plaza</i>	1.575
2017/6/14	Zumarraga	<i>Euskadi plaza</i>	9.918
2017/6/15	Legazpi	<i>Euskal Herria plaza</i>	8.485
2017/6/16	Bergara	<i>San Martin Agirre plaza</i>	14.743
2017/6/19	Irura	<i>San Miguel plaza</i>	1.785
2017/6/20	Asteasu	<i>Lege Zaharren enparantza</i>	1.505
2017/6/21	Villabona	<i>Berdura plaza</i>	5.891
2017/6/22	Legorreta	<i>Korta eta Zapas plaza</i>	1.443
2017/6/26	Lezo	<i>Gurutze Santuaren plaza</i>	5.960
2017/6/27	Hondarribia	<i>San Pedro kalea</i>	16.950
2017/6/30	Tolosa	<i>Foruen enparantzan</i>	19.175
		GUZTIRA	586.605

Iturria: guk egina.

Unibertso osoa kontuan hartuta (Gipuzkoan, orotara, 717.832 biztanle daude erroldatuta Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera), Herriz Herri kanpaina 100 biztanletik 80ra iritsi ahal izan da¹; hau da, guztira, herritarren % 81,7ra, eta nabarmen hobetu da kanpainan zehar karpek izan duten presentzia iaz izandakoarekin alderatuta.

¹ Kasu honetan, ekimenaren potentzialtasun estatistikoa ikusarazten ari gara, Gipuzkoako unibertso osoa kontuan hartuta, eta adina aldaera gisa baztertu gabe (gogora dezagun, erroldatuta dauden 16 urtetik gorakoek besterik ezin izan dutela ekimenean parte hartu).



1.3.5. TOPAKETA TEMATIKOAK ENTITATEEKIN ETA ELKARTEEKIN

Aurrekontu Irekiak 2018 partaidetza ekimena gizarteratzeko prozesua amaitzeko, proiektua aurkeztuko da eta elkarrizketa zuzena egin da entitateekin, gizarte erakundeekin eta askotariko elkarteekin, *Topaketak* ekimenaren bidez. Gizarte ordezkariak eta elkarte egitura funtsezko eragileak dira gure gizartean, bai dituzten ezagutzengatik, bai helarazten diguten taldeko ikuspegiagatik. Hori dela eta, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko foru diputatua Imanol Lasak eta Herritarren Partaidetzarako zuzendari orokorra Joseba Muxikak bileren egutegia ezarri zuten hainbat gizarte eragilerekin haien ahotsa entzuteko asmoz, eta Aurrekontu Irekiak 2018 partaidetza ekimenean parte hartzeko nahiz ekarpenak egiteko gonbidapena egiteko asmoz. Guztira, 28 topaketa egin dituzte hainbat elkarterekin eta entitateekin, eta 500 pertsona joan ziren horietara. Jarraian, Aurrekontu Irekiak 2018 kanpainan izandako bileren zerrenda jarri dago ikusgai:

HERRIA	DATA	ERAKUNDE MOTA	BERTARATUTAKOAK
ANDOAIN	2017/5/15	Hirugarren sektorea – Gizarte kolektiboak	14
ANTZUOLA	2017/6/1	Herritarrak	21
ARETXABALETA	2017/5/26	Ikastetxeak eta prestakuntza zentroak	21
ARRASATE	2017/5/26	Mondragon unibertsitatea	16
ASTIGARRAGA	2017/6/8	Lehen sektorea	15
AZKOITIA	2017/5/18	Ikastetxeak eta prestakuntza zentroak	33
AZPEITIA	2017/5/22	Merkataritza	12
DEBA	2017/5/24	Elkarte kulturalak	21
DONOSTIA	2017/5/5	Deustuko Unibertsitatea	43
DONOSTIA	2017/5/3	Ikastetxeak	56
EIBAR	2017/5/25	Erretiratuen elkarte	41
ELGOIBAR	2017/5/26	Ikastetxeak	15
GETARIA	2017/5/17	Erretiratuen elkarte	23
HERNANI	2017/5/8	Ikastetxeak eta prestakuntza zentroak	11
IDIAZABAL	2017/6/16	Lehen sektorea	10
IRUN	2017/5/11	Hirugarren sektorea – Gizarte kolektiboak	15
LEGAZPI	2017/6/15	Erretiratuen elkarte	12
LEZO	2017/6/26	Herritarrak	10
OIARTZUN	2017/5/9	Kirol eta kultura elkarteak	8
ORDIZIA	2017/6/9	Garapen ekonomikoa	13
ORIO	2017/5/16	Ikastetxeak – Gurasoen elkarte	12
PASAIA	2017/5/10	Ikastetxeak	21



HERRIA	DATA	ERAKUNDE MOTA	BERTARATUTAKOAK
TOLOSA	2017/6/30	Garapen ekonomikoa	4
TOLOSA	2017/6/22	Hirugarren sektorea	12
URRETXU	2017/6/8	Garapen ekonomikoa	9
ZARAUTZ	2017/5/29	Ikastetxeak eta prestakuntza zentroak	25
ZUMAIA	2017/5/23	Erretiratuen elkarteak	23
ZUMARRAGA	2017/6/15	Erretiratuen elkarteak	11
GUZTIRA			527

Askotariko gizarte sektoreek eta kolektiboek eginiko ekarpenen inguruan eztabaidatu zuten, eta aktan jaso dira (*ad hoc* txostenean sartu dira). Era berean, Aurrekontu Irekiak 2018rako galdetegia betetzera animatu zituzten bertaratuak.

1.4. ZER GALDETU ZAIE HERRITARREI?

Aurrekontu Irekiak 2018 ekimenean, Gipuzkoan erroldatuta dauden 16 urtetik gorako edozein herritarrek izan du parte hartzeko aukera. Aurrekontu Irekien prozesurako hiru ariketa proposatu dira. Horietan, galdera irekiak eta itxiak daude tartekatuta:

- ➔ 1. GALDERA IREKIA: Zer proposamen dituzu 2018ko aurrekontuetarako?
- ➔ 2. GALDERA IREKIA: Zein da zure ustez Gipuzkoako etorkizuneko erronka nagusia?
- ➔ 1. GALDERA ITXIA: Zer hiru arlotan nahiko zenuke Aldundiak inbertitzea?

Planteamendu metodologiko horri esker, herritarrek dituzten hausnarketa, kezka, nahi, gomendio eta iradokizun nagusiak jaso ahal izan ditugu, eta Foru Aurrekontuak egiteko esparruan Foru Erakundeak hartu beharreko norabidea bideratu da.

Lehen bi galderetan, modu irekian proposatzen da etorkizuneko testuinguruan Lurralde Historikoak dituen aurrekontu beharrezan eta erronken inguruko proposamenak egitea. Galdera itxi bakarra dago, eta, bertan, hamaika proposamenetik hiru item aukeratzea proposatzen da, Foru Aldundiko Departamentuek datorren ekitaldian jorratuko dituzten jardunbideak eta proiektuak martxan jartzearekin lotuta. Hau da item horien zerrenda:

1. Gizarte zerbitzuak
2. Sustapen ekonomikoa eta enplegua
3. Azpiegiturak
4. Garraio publikoa
5. Kultura



6. Turismoa
7. Ingurumena
8. Iruzuraren aurkako borroka
9. Nekazaritza, abeltzaintza eta mendiak
10. Lana eta familia uztartzeko politikak eta Berdintasuna
11. Euskara

Orotara, askotariko teknika estatistiko konbinatuz (analisi kualitatiboa 1. eta 2. galderetara, eta kuantitatiboa, 3. galderarako), datuen bilketa eraginkorra bermatzen da, eta jasotako emaitzetan balio handia dute.

1.5. ZER BERRIKUNTZA EKARRI DITU PARTAIDETZA PROZESU HONEK?

Orain arte ezarri diren askotariko partaidetza prozesuen lorratzari jarraikiz, Aurrekontu Irekiak 2018 partaidetza ekimena, funtsean eta forman, prozesu berria eta berritzailea da. Jarraian, Gipuzkoan partaidetzaren kultura sendotzeko asmoz txertatutako hainbat berrikuntza nabarmenduko ditugu:

1. **Gizarteratze eraginkorragoa:** Nabarmen hobetu dira prozesua zabaltzeko bideak; izan ere, aurreko ekitaldian (guztira, 310.000) baino 25.000 galdetegi gehiago bidali dira etxez etxe. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardunbideak nahiz jarduketa politikak azaltzeko mapa didaktiko berriak ere egin dituzte.
2. **Parte hartzeko egun gehiago:** 60 egun egon dira; iazko prozesuan, berriz, 44.
3. **Presentzia handiagoa kalean:** aurreko ekitaldian, partaidetzarako karpak 16 herritan jarri zituzten; oraingo honetan, berriz, 38 herritara iritsi dira Herriz Herri kanpainan. Hortaz, eragin potentziala herritarren % 81,7 izan da.
4. **Topaketa gehiago gizarte zibilarekin:** hainbat gizarte entitaterekin eta erakunderekin izandako topaketetara bertaratutako kopurua handitu egin da. Hala, 500 pertsona baino gehiago egon dira 28 topaketetan.
5. **Galdetegi eskuragarriagoa eta pedagogikoagoa:** ikusizko galdetegiaren diseinua eta metodologia hobetu egin dira. Hala, ekarpen irekiak egitearen eta herritarrek iritziak ematearen aldeko apustua egin da.
6. **Hobekuntzak partaidetza birtualean:** galdetegi birtuala hobetu da; izan ere, bide horren bitartez parte hartu nahi izan duten herritarrentzat eskuragarriagoa, erabilgarriagoa eta errazagoa izan da.





2. METODOLOGIA

Ikuspuntu metodologikoa bat dator datu estatistikoak aztertzeko erabili ohi diren ikerketa teknika kualitatibo eta kuantitatiboekin. Horretarako, kalkulu estatistikoak aplikatu dira emaitzen ezaugarriak zehazteko, lurraldea ordezkatzeko duen lagin gisa.

2.1. PARTAIDETZA MAILAREN ANALISIA

Lagin horren neurrian, Aurrekontu Irekiak 2018 prozesurako prestatu diren askotariko kanalen bidez galdetegia behar bezala bete duten partaide guztiak sartu dira. Baldintza hauek bete behar izan dituzte: 16 urte baino gehiago izatea eta Gipuzkoan erroldatuta egotea. Modu xehatuan, adierazle eta aldaera hauen arabera hartuko da kontuan partaidetza:

- Online partaideen kopurua, erregistro publikoren batera edo Gipuzkoako Foru Aldundira gidaliburua bidali duten edo karpeta aurrez aurre parte hartu dutenen kopuruarekin alderatuta.
- Parte hartu duten emakumeen kopurua, parte hartu duten gizonen kopuruarekin alderatuta.
- Laginaren batez besteko adina.

Metodologiaren inguruko oharra: Emaitza horietan, jasotako datuak iragazi egingo dira (aurrez aurrekoak nahiz online bidezkoak). Era berean, histograma bat egingo da adinaren banaketa jasotzeko, eta aurrez aurreko laginaren banaketa geografikoa aintzat hartuko da.

2.2. EKARPENEN ANALISI IREKIA (1. galdera – 2. galdera)

Herritarrek 1. eta 2. galderen inguruan eginiko ekarpenak kategorien arabera kuantifikatu eta kodetuko dira. Hala, mapa kualitatibo bat egin ahal izango da partaideen osatutako laginak eginiko ekarpenak jasotzeko.



2.3. PROIEKTUEN AUKERAKETARI BURUZKO ANALISIA (3. galdera)

3 itemak aukeratzearen inguruko analisisian, 11 jardunbide jasotzen dituen katalogoa ageri da. Horretarako, hautatutako kasu guztiak zenbatuko dira. Kasu honetan, proiektu bakoitzeko gehitu egingo da (Σ), hierarkiaren arabera sailkapena egiteko, gehien hautatu denetik gutxien hautatu denera.

2.4. FITXA TEKNIKOA

- **Unibertsoa:** 618.256 (2014/12/31ko errolda, Gipuzkoan erroldatutako 16 urtetik gorako pertsonak) [318,054 emakume eta 300,202 gizon]
- **Laginaren neurria:** 2.859 pertsona
- **Laginketa egiteko metodoa:** Ausazko laginketa bakuna
- **Konfiantza maila:** Kalkulua egiteko % 95eko konfiantza maila erabili da (% 95eko probabilitatea dago errore tartea laginketa neurri horretarako kalkulaturakoa izateko)
- **Errore tartea:** 618.256 biztanletatik 2.859 pertsonako lagina hartuta, gehienez ere % 1,8ko errore tartea lortzen da.
- **Informazioa jasotzea:** Karpetan eginiko ekarpenak, Topaketak, gidaliburuak bidaltzea eta online bidea.
- **Ekimenak egiteko datak:** 2017ko maiatzak 02 – ekainak 30



3. EMAITZAK


3.3. PARTAIDETZAREN EMAITZAK

Guztira, laginak **2.859 pertsona** hartzen ditu barne.

Jarraian, generoaren eta adinaren arabera xehatutako datuak ematen ditugu:

3.1.1. Partaidetza, generoaren arabera


Emakumeen partaidetza (% 58) gizonena (% 30) baino handiagoa da.



3.1.2. Partaidetza, adinaren arabera

Batez besteko adina **48,6 urtekoa da**. Histograma honetan, banaketa adin tarteen arabera ikus daiteke.

Adin-Histograma






3.1.3. Jasotako ekarpenen kopurua

Guztira, **7.683 ekarpen** kuantifikatu eta kodetu dira.

Ekarpen kopurua	
1. Galdera (1 g.)	4734
2. Galdera (2 g.)	2669
Topaketak	280
Guztira	7.683

3.1.4. Partaidetzarako aukeratutako bideak

Neurri ezberdinetako herrien arabera karpa ibiltariak jarrita egin den **Herriz – Herri kanpainan** jaso da ekarpen kopuru gehien (% **83**), prestatu diren gainerako kanalekin alderatuta.






3.2. PARTAIDETZA PROZESUAREN EMAITZAK

Jarraian, galdetegietan eginiko hiru galderei buruzko emaitzak jarri dira ikusgai. Horretarako, galdera irekietan (1. galderan eta 2. galderan) jasotako ekarpenen analisi kualitatiboaren analisisa egin da. Gainera, galdera itxian (3. galderan) gehien aukeratu dituzten 3 jardunbideak jarri dira ikusgai.

3.2.1 Galdera (1) Zeintzuk dira 2018ko Aurrekonturako zure proposamenak?

Guztira, **herritarrek 4.734 ekarpen** egin dituzte galdetegiaren lehen ariketan. Bertan, parte hartu duten herritarrei 2018ko Foru Aurrekontuen inguruan dituzten ideiak, iradokizunak, gomendioak edo ikuspegia galdetzen zitzairen. Herritarrek helarazitako ekarpenak kodetu eta aztertu ondoren, **Sustapen Ekonomikoa, Landa Ingurua eta Lurralde Oreka departamentuak (871 ekarpen)** eta **Gizarte Politiketako Departamentuak (836 ekarpen)** jaso dituzte ekarpen gehien.

Jarraian, grafiko batean jasotzen da laburpen gisa departamenduz departamendu kodetutako eta kuantifikatutako ekarpenen grafikoa. Mapa gisa balio du, bertan ikusten baita zer lehentasun ematen dioten lagineko parte-hartzaileek lehen ariketa honetan politikei eta ekintzei. Gogorarazi nahi dugu xehetasunez kontsultatu daitezkeela herritarrek I. Eranskinean jasotako ekarpenak.






Herritarrek askotariko ekarpenak egin dituztela aintzat hartuta, jarraian Departamendu bakoitzean gehien errepikatzen diren ekarpenak aztertu ditugu. Hala ere, gogorarazi behar dugu helarazitako zenbait ideia eta ekarpen ez direla Foru Aldundiaren eskuduntzakoak. Hori dela eta, partaidetza prozesu hau herritarrei itzultzeko fasean –Foru Departamenduek banan-banan erantzun diete Gipuzkoako herritarrek adierazitako kezka eta beharrianei–, Foru Erakundearen eskuduntzen egituraren inguruan herritarrek eginiko ekarpenak jasoko dira, baita beste atal eta administrazioeko espazio batzuei dagozkien beste batzuk ere, izan tokiko esparrukoak, izan estatuko esparrukoak.



1. Diputatu Nagusiaren Alorra (356 ekarpen)




Diputatu nagusiaren kabinetera bideratutako ekarpenetan, lehenik eta behin, **euskararen erabilera sustatzeko eta lurraldean hizkuntza berdintasunean aurrerapausoak emateko ekimenak garatzea** eskatzen da. Horretarako, laguntzak handitzeko eta euskararen ikaskuntza sustatzeko beharra nabarmendu da, baita administrazio publikoan euskara sustatzeko beharra ere, besteak beste.

Bigarrenik, herritarrek adierazi dute beharrezkoa dela **familia eta lana uztartzeko politiketan aurrerapausoak ematea**, benetako uztartzea eraginkorra izan dadin, eta emakumeek eta gizonek familiako bizitza eta bizitza pribatua lanarekin uztartu ahal izan dezaten. Era berean, Foru Aldundiak generoaren arloan politika eraginkorren aldeko apustua egitea xede duten ekarpen ugari egin dira, emakume eta gizonen artean dagoen soldaten zirrikitua desagerrarazteko ekintzak, indarkeria matxistaren aurkako kanpainak eta emakumea gizartean ahalduntzeko kanpainak.

Azkenik, Aldundiaren gobernu birbideratzera bideratutako hainbat ekarpen zerrendatu dira. Horrez gain, herritarren elkarbizitza eta aniztasuna sustatu da, eta horien artean, hauek nabarmentzen dira: elkarbizitza, giza eskubideak, justizia, bakea, gizarteratzea, arrazakeriaren aurkako borroka eta aniztasunaren sustapena.



2. Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua (412 ekarpen)



Departamentu honetan sailkatutako lehentasunekin bat etorriz, **kulturaren sustapena eta hedapena** lehen lekuan daude kokatuta. Kasu honetan, herritarrek kultura arloko hainbat proiektu estrategiko proposatu dituzte (orokorrak eta zehatzak), baita kultura bonua eta biztanleria talde espezifikoek zuzendutako ekintza kulturalak handitzea ere. Gazteak eta adinekoak hartzen ditu barne.

Bigarrenik, **gazteei zuzendutako politikak garatzeko eta ezartzeko proposamenak** eginkizun garrantzitsua izan du. Parte-hartzaileen laginak eskatzen du politikak egitean, gazteentzako inbertsioei lehentasuna ematea, deskontuak eta erraztasunak ematea kulturen eta gizarte sustapenean sarbidea izateko eta estratu horren prestakuntza eta ikaskuntzarako beka babestea xede duten politikak eta programak bultzatzeko. Horrekin batera, oro har eta modu zehatzean gazteentzako aisialdira bideratutako programa aktiboetan sakontzeko beharra aintzat hartzen duten ekarpenak egin dira.

Hirugarrenik, ekarpenen beste katalogo batean, **Gipuzkoan kirola bultzatzeko, babesteko eta sustatzeko beharra** adierazten da, bai kirol esparrura bideratutako berariazko politiken bidez,




bai jokia ahalbidetzen duten azpiegituren bidez. Kasu honetan, I. Eranskinean jasotako eta islatutako ekarpenen artean, besteak beste, honako hauek jasotzen dira: eskolako kirola eta kirol txikiak bultzatzea, edo zenbait herritan kirol azpiegiturak eraikitzea.

Laugarren lekuan, turismoaren sektorean sailkatuta dauden eta Departamentu honi bideratutako ekarpenak jasotzen dira. Berariaz, ekarpen askotan eskatzen da Gipuzkoa osoan turismoa garatzea (zenbait lurraldetan dagoen turismoaren kontzentrazioaren aurrean), baita sektore hori haztea ahalbidetzen duten azpiegiturak zaintzea ere. Edozein kasutan, turismoa bultzatzen duten politikak iraunkor izateko beharra sumatzen da. Lurraldeko zenbait zonatako turismoaren masifikazioa arazo larritzat ikusten dute. Hala, hazkunde arduratsua, iraunkorra eta errespetuzkoa zaintzeko beharra adierazi dute.

Azkenik, Ondare Historiko eta Artistikoa babesteari eta kudeatzeari buruzko hainbat ekarpen daude, eta eraikin historiko ugari hobetzeko gomendioak egiten dira.



3. Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentua (64 ekarpen)




Departamentu honetan sartutako herritarren ekarpenak, lehenik eta behin, Foru Aldundiko zerbitzu publikoen **administrazioa modernizatzeraz eta hobetzeraz** bideratuta daude. Kasu honetan, parte-hartzaileen laginak lehentasuna ematen dio izapide burokratikoak arintzeko beharrari eta erakunde garden eta herritar guztiarentzako eskuragarri batzuetarako esparruan aurrerapausoak ematea. Era berean, hainbat ekarpen biltzen dira langile publikoen lan baldintzak hobetzearen inguruan, askotariko esparruetako beste proposamen batzuen artean.

Bigarrenik, herritarrek adierazi dute beharrezkoa dela Foru Erakundearen oro har **Gobernu Irekiaren proiektioa sendotzea**, eta, zehatzago, **herritarren partaidetzan aurrerapausoak ematea**. Azkenik, sutei aurre egiteko eta itzaltzeko prebentzio eta salbamendu zerbitzuetara bideratutako ekarpen bat egin da.



4. Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Oreka Departamentua. (871 ekarpen).



Zabal azaltzeko, **enpleguren politika aktiboaren eskaria** izan da prozesu osoan gehien egin diren ekarpenetako bat. Herritarrek, lehenetsun gisa, Lurralde Historikoan enplegua sortzea bermatuko duten programetan aurrerapausoak emateko beharrezko duela adierazi dute. Gainera, kalitateko enplegua sortu behar dela nabarmendu dute. Horretarako, soldata duina eta egiten diren lanen eta zerbitzuen neurrikoa izan behar du, eta emakumeak modu eraginkorrean sartu behar dira sektore ekonomiko guztien lan merkatura. Halaber, berariazko formulak eskaintzen dira helburu hori lortzeko. Besteak beste, ekarpen partikular hauek egin dituzte: enplegu azokak, obra publikoa edo ekonomia suspertzeko programak Gipuzkoako eskualde batzuetarako. Era berean, gazteentzat enplegurako politika aktiboak sustatzea lehenetsuntzat jo dute ariketa horretan parte hartu duten herritarrek. Zehazki, biztanleria talde horretara



bideratutako ekintzetan eta programetan aurrerapausoak ematea prozesu osoan behin eta berriz egindako eskaria izan da. Horren barruan sartzen da gazteek enpresetara eta merkatu-hobietara sartzeko prestakuntza, talentuek ihes egin ez dezaten eta Gipuzkoako gazteei pertsona gazteen itzaropenei erantzuteko garapen sozioekonomikoa osatzen duen planaren parte izateko aukera emanez.

Herritarrek adierazi dute, halaber, argi eta garbi egiten dutela **garapen ekonomiko sendoa eta egonkorra bermatzeko politiken eta programen aldeko apustua**. Espazio ekonomiko lehiakorra eta hedakorra finkatzeko, beharrezkoa da enpresei laguntzea (enpresa txiki eta ertainei), bai produkzioari begira dituzten helburuetan, bai oro har langileen eta zehatzago gazteen kontratazioari begira. Gainera, **autonomoen egoera hobetzeko** ekarpen asko egin dituzte. Horretarako, hainbat neurri proposatu dituzte, eta euren lana egiteko laguntzak eta onurak beharrezkoak direla esan dute. **Enplegu politika aktiboak proposatzea 35 urtetik gorako pertsonentzat** begi bistako beharrezkoa dela uste dute. Hala, 35 – 40 – 45 – 50 – 55 urteko biztanle taldeek lana bilatzeko besteek baino zailtasun handiagoak dituztela uste dute. Horrez gain, merkatari txikientzako laguntzak, tokiko ikuspuntutik begiratuta, lurraldeko garapen sozioekonomikoarekin loturiko esparruaren barruan bildutako beste kontu bat izan da.

Bigarrenik, **landa-inguruko garapena** askotan errepikatu dute lagina osatzen duten parte-hartzaileek. Ariketa hau osatu duten herritarrek baserrirei nahiz baserritarrei laguntzea eskatu dute, baita Lehen Sektorea eta landa-ingurua zaintzea, babestea eta garatzea xede duten politikak babestea eta bultzatzea ere. Zehazki, ekarpen multzo handia egin dute. Ekarpene horien bidez, tokiko produktua babesteko eta bultzatzeko ekintzak, edota lehen sektorean enplegua babesteko ekintzak eskatzen dira. Azken kasu horretan, kezka ikusten dute landa-inguruan dagoen zahartzearen fenomenoak. Beraz, belaunaldi erreleboa bermatzeko politikak eskatzen dira, eta ikus daiteke populazio gaztearentzat aukera ona dela sektorea suspertzeko eta zahartzea lehen sektoreko lanaren indar gisa erabiltzeko soluzio gisa.

Hirugarrenik, **mendien zaintza eta babesa eta habitaten kudeaketa** herritarrentzako oinarrizko eskari gisa agertu da. Partaideek eskatzen dute Gipuzkoako mendien eta basoen zaintzan, mantentze-lanetan, garbiketan eta babesean aurrerapausoak ematea, bai orokorrean, bai modu zehatzean, eskualde eta berdegune batzuetarako. Esparru horretan, bide eta basabideen babesa ere lehentasuntzat jo dute behin eta berriz.

Laugarrenik, ariketa honetan parte hartu duten lagineko herritarrek beharrezkoa ikusten dute zientzia, teknologia eta berrikuntza bultzatzea. Horretarako, I+G+b bultzatzeko politikak eta programak bideratu behar dira, Gipuzkoa lurralde lehiakorra eta puntakoa izan dadin. Horretarako, langileen ekintzailtza eta prestakuntza ziurtatzea funtsezkotzat jo dute, bereziki




esku lan oso kualifikatua lortzeko. Horrek, era berean, lurralde osoaren garapen ekonomikoan eta guztion onerako izango du eragina.

Bosgarrenik, behar-beharrezkotzat jo dute Lurralde Historikoan **industria nahiz industria egitura bultzatzea, babestea, suspertzea** eta horren alde egitea. Ekarpen batzuetan, era partikularrean eskatzen dute industria 4.0 garatzea eta inplementatzea. Beste gomendio batzuetan, berriz, herritarrek batez ere industria tradizionala dute helburu.

Azkenik, **lurralde oreka** ere agertu da herritarrek eginiko ekarpenen artean. Ekarpen batzuetan, udalerri txikietako inbertsioak eta laguntzak handitzearen aldeko apustua egiten da, baita azpiegiturretan teknologia egokitzearen aldeko apustua ere, adibidez, zuntz optikoa instalatzeko eta hedatzeko.



5. Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua (585 ekarpen)



Departamentu honetara bideratutako ekarpenek agerian uzten dute **lurraldean garraio publikoaren garapenak, egokitzapenak eta sustapenak** dutela lehentasuna. Ildo horretan, hobekuntza orokorren katalogoa jasotzen da. Horien bidez, Gipuzkoako garraio publikoa handitzeko eta hobetzeko apustua egiten da. Horretarako, autobusen maiztasuna handitu behar da (bereziki gaueko ordutegietan eta asteburuetan, hurrenez hurren), eta loturak hobetuko dira, bereziki herri eta udalerrri txikiagoetan. Gainera, herritarrek hainbat ekarpen helarazi dituzte. Hala, modu partikularrean eskatzen dute Deban garraio publikoa egokitzeko eta hobetzeko, baita Donostiarekiko eta probintzia arteko loturak ere, Astigarraga, Zarautz, Eibar, Oñati, Arrasate, Elgeta, Legorreta, Goierri edo Eskoriatza, besteak beste.

Bigarrenik, herritarrek adierazi dute beharrezkoa dela **garraio publikorako sarbidea izateko kostua murriztea**. Horretarako, *Mugi* txartela aztertu behar da, eta kolektibo espezifikoei bideratutako deskontuak egin behar dira, besteak beste, gazteentzat eta adinekoentzat. Halaber, proposamen zehatzen artean, agerian geratu dira **txartel bakar batean garraio zerbitzu ezberdinak bateratzeko** eskaera, edo Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan garraiorako txartel bakarraren erabilera.

Bizikletetarako bideak (bidegorriak) bultzatzea eta zabaltzea dago lehentasunen bigarren lekuan. Herritarrek, berriaz, bidegorri berrien proiektuak aipatu dituzte Mutrikun, Deban, Bergaran, Antzuolan, Arrasaten, Ordizian, Elgoibarren, Eskoriatzan edo Eibarren, besteak beste.




Halaber, bidegorrien sarea handitzea, egokitzea eta mantentzea eskatu dute, baita amaitzea eta bizikletetarako bideen bidez Lurralde Historikoko hainbat herri lotzea.

Hirugarrenik, hainbat ekarpenetan, kontrako ikuspuntuak jasotzen dira **Donostialdeako Metroaren proiektuaren** inguruan. Zehazki, proiektuaren aurka daudenak nabarmendu behar dira. Azkenik, hainbat ekarpen daude **Pasaialdea eta bere portua** sustatzeko eskatzera bideratuta, baita hirigintza arloko plangintzara, kudeaketara, exekuziora eta diziplinara bideratutako beste zenbait ere.



6. Ogasun eta Finantza Departamentua (275 ekarpen)




Departamentu honetara bideratutako ekarpenek **iruzur fiskalaren aurkako borroka** hartzen dute abiapuntu. Kasu honetan, herritarrak esparru guztietan iruzurraren aurkako borrokan baliabide gehiago eskatzen dituzte, baita ikuskaritza fiskala handitzeko, tresna eraginkorrak erabiltzeko eta iruzurraren aurkako aurrerapausoak bermatzeko sistema ezartzeko ere.

Bigarrenik, hainbat **ekimen ekonomiko eta fiskal** jaso dira. Horietan, hainbat proposamen fiskal nabarmendu behar dira; besteak beste, zergak edo kulturaren BEZa jaisteko eskatzea. Horrez gain, departamendu honetan, gastu publikoari lehentasuna emateko, herritar guztien onerako izango den aberastasunaren banaketa ziurtatzeko, autonomo lana duten pertsonentzako fiskalitate onuragarri berria sartzeko eta OHZ jaisteko ekarpenak kuantifikatu dira.

Azkenik, herritarren arretara, gardentasun fiskalera eta zor publikora bideratutako ekarpenak jaso dira.



7. Bide Azpiegituretako Departamentua (499 ekarpen)




Gipuzkoako **errepideen sarea eraikitzearekin eta hobetzearekin** loturiko ekarpenak nabarmendu behar dira lehenik. Zehazki, berariazko neurriak eskatzen dituzte Deba, Bergara, Antzuola, Mutriku errepideetan, Gasteizerako errepidean, Iruran, Donostian, A15 bidean, N-1 errepidean, Zegaman edo Legazpin, besteak beste. Era berean, herritarrek adierazi dute azpiegiturek hobetu behar direla, etengabe aurrerapausoak eman behar direla errepideen mantentze-lanetan, sarea hobetu behar dela, eta lurzorua garbitu behar dela txirrindularien segurtasuna hobetzeko.

Bigarrenik, ekarpen askotan jasotzen da **pantaila akustikoak instalatu** behar direla lurraldeko herrien eta udalerrien inguruan dabilzan ibilgailuek eragiten duten zarataren eragina gutxiagotzeko. Kasu honetan, berariaz eskatzen da Andoainen, A8 errepidean, Ordizian, Iruran, Sorabillan eta Mendaron, besteak beste, panelak instalatzea.

Azkenik, Departamentu honek aztertutako ekarpenen bidez eskatzen da **bidesarien kostua murriztea eta autobideen kostua murriztea**.



8. Gizarte Politikako Departamentua (836 ekarpen)



Bigarren lekuan, gizarte sustapenaren esparruko ekarpen guztiak Foru Aldundiaren eskuduntzakoak ez direla kontuan hartuta (DSBE, pentsioak...), Gizarte Politiketako Departamentua izango litzateke hautatuena. Lehenik eta behin, herritarrek **Gizarte Ekintzarekin loturiko politiketan** egin dira eskari gehienak. Hori bai, egindako kodetzea aintzat hartuta, beharrezkotzat jo dute adineko pertsonentzako egoitzen kopurua handitzea, baita egoitza horietako leku kopurua ere. Era berean, etxeko laguntza indartzea eta aurrerapausoak egitea, eguneko zentro gehiago sustatzea eta babespeko etxebizitzaren aldeko apustua egitea ere eskatzen dute. Adineko pertsonen babesa lehentasuntzat jotzen du parte-hartzaileen laginak, baita Foru Aldundiak mendeko pertsonekin eta aniztasun funtzionala duten pertsonekin duen arreta eta konpromisoa ere. Hau da, egoitza zentroak sustatzea eta hedatzea (bertan sartzen dira zentro berriak, leku gehiago jartzea, ratioak hobetzea, etxeko laguntza, eguneko zentroak eta babespeko etxebizitzak), eta mendetasuna duten pertsonentzako, aniztasun funtzionala dutenentzako eta adineko pertsonentzako laguntza sozialak areagotzea izan dira prozesu osoan zehar gehien errepikatu diren eskariak. Kategorizazio horren esparruan, herritarrek ere berariazko konponbideak eman dituzte. Horien artean sartzen dira mendekotasun legerako hobekuntzak, adineko pertsonentzako egoitzak, *cohousinga* sustatzea edo gizarte zerbitzuen sektorea garatzeko plana.

Bigarrenik, eta aurreko puntuarekin batera, ekarpen asko **Foru Erakundearentzat Gizarte Politikak lehentasunezkoak izatera** bideratuta daude. Parte-hartzaileen laginarekin bat etorriz, horretarako beharrezkoa da gizarte zerbitzuetan inbertitzea, sektore horretako langileentzat




kalitateko lan baldintzak bermatzea eta lanpostuen kopurua handitzea, arreta zerbitzuak hobetuz, laguntzak kudeatuz eta arinagoak nahiz eraginkorragoak izatea lortzeko.

Hirugarrenik, ekarpen kopuru handi batek gizarte laguntzak emateari buruzko pertzepzio partikular bat ematen dute. Esparru kualitatibo honetan jasotako ekarpen askotan, **kontrol handiagoa eskatzen da laguntzen banaketan, esleipenean eta emakidan**. Era berean, gizarte **laguntzen hartzaileei ikuskaritza handiagoa** egitea eskatzen da. Modu partikularrean, herritarren kopuru esanguratsu batek lehentasuna ematen diete lurraldean jaiotako pertsonen laguntzak eskuratzeko aukerari, beste jatorri nazional bat duten pertsonekin alderatuta.

Azkenik, herritarrek hainbat inbertsio aipatu dituzte biztanleria talde edo kolektibo espezifikotarako. Horien artean nabarmentzen dira, besteak beste, gizarte bazterkeriaren egoeran dauden pertsonak, familia, lurraldean jaiotzak bultzatzeko programen aldeko apustua, langabezia dauden pertsonak, indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeen babes, gazteria (bereziki etxebizitzarako sarbidearekin lotuta), alargunak eta herritar migratzaileak, besteak beste.



9. Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua (448 ekarpen)



Departamentu honi bideratutako ekarpenak lehentasun gisa jaso dira **lurraldeko hondakinen kudeaketan**. Kasu honetan, ekarpenen kopuru esanguratsuan aipatzen da **errauستيaren proiektuaren** instalazioa eta exekuzioa gaitzesten dutela, kaltegarritzat jotzen baitute pertsonen osasunerako eta eragiten duen gailkosturako. Azpiegitura handiak egitearen kontrako iritziak behin eta berriz errepikatzen diren faktore gisa ikusten dira partaidetza prozesuan. Errauستيaren kasuan, herritarrek populazioaren artean birziklatze tasak handitzea xede duten politika alternatiboak eskaintzen dituzte konponbide gisa. Horien barruan sartzen dira birziklatzeko, insumoak murrizteko, kontsumo arduratsua egiteko eta hondakinak modu eraginkorrean eta garantistan kudeatzeko sustapen kanpainak. Horrenbestez, **hondakinen tratamendua kezka nabarmen gisa** jaso dute, bereziki kontuan hartzen badugu hondakinak kudeatzea eta kontrolatzea edo atez ateko sistema inplementatzea xede duten politikak berriz aztertu behar direla.

Bigarrenik, **ingurumena babestea eta hobetzea** nabarmentzen dira herritarrek eginiko ekarpen kopuru handienaren kategoria gisa. Zehazki, ingurumenaren eta ingurumen inpaktuaren inguruko kontzientzia bultzatzen duten politikak sustatzea aipatu dute, lurraldeko ingurumen kalitatea hobetzeko. Era berean, hainbat ekarpen egin dira **energia iraunkorra** (energia berriztagarriak erabiliz), jasangarritasuna, narriatutako eremuen zaharberritzea edo klima aldaketaren aurkako politika aktiboak.




Hirugarrenik, herritarrek kezka adierazi dute zenbait **ibaitako uraren kalitateari** dagokionez. Hala, Gipuzkoako ibaiak garbi eta mantentze-lan egokiekin izateko beharra nabarmendu dute. Ildo horretan, hainbat ibairen garbiketari buruzko ekarpen zehatzak jaso dira, adibidez, Mijoa ibaian, Saturraran inguruan edo Oria ibaian, besteak beste.

Azkenik, herritarrek **azpiegitura hidraulikoei** buruzko zenbait proposamen egin dituzte (Mijoako araztegiaren bideratze-lanak nabarmendu behar dira), baita hondartzen garbiketalanak ere.




10. Batzar Nagusia eta Kabia (11 ekarpen)



Egitura politiko hauetan, zenbait ekarpen jaso dira. Horietan, zalantzan jartzen dira politikan diharduten pertsonen ordainsariak, baita horien eginkizuna eta egitura ere.

11. Foru eskuduntza gabeko ekarpenak (377 ekarpen)





Atal honetan, aurretiaz Foru Aldundiaren eskuduntzakoak ez diren ekarpenak hartu dira kontuan. Adibidez, lehen lekuan kokatu dute hezkuntza eta irakaskuntza publikoaren inbertsioa eta sustapena.


Bigarren lekuan, udal esparruko hainbat ekarpen kuantifikatu dira, besteak beste, Donostia, Mutriku, Billabona, Hernani, Lezo, Pasaia eta Hondarribia udalerrietara bideratuta. Hirugarren lekuan, osasun sektorean inbertsioa aztertzea, hedatzea nahiz indartzea eskatzen duten herritarren hainbat ekarpen jaso dituzte. Udal esparruko proposamen orokorrak (taxi zerbitzuak, auto zirkuituak, oinezkoentzako zonak edo aisialdirako eremuak) ere aztertu dira kategoria honetan, etxebizitzan inbertsioa handitzeko, alokairuaren prezioak jaisteko, edo erakunde publikoek etxebizitza sozialetarako eta etxebizitza babestuetarako sarbidea sustatzeko beharra adierazten duten beste ekarpen batzuekin batera.

Azkenik, gizarte laguntzak kontrolatzea xede duten hainbat ekarpen daude; adibidez, Diru-sarrerak bermatzeko errenta orokorra, eta pentsioak handitzea eta hobetzea. Era berean, azpiegituren (Trenaren - Euskotrenen), Abiadura Handiko Trenaren, garbiketaren, segurtasun publikoaren, RENFEren, Aireportuaren eta justiziaren inguruko ekarpenak ere egin dira.



3.2.2 Galdera (2): Zein uste duzu dela Gipuzkoaren etorkizuneko erronkarik nagusiena?

Jarraian, kategorietan jasota ageri dira gerora begira lurraldearen erronkak ezagutzea xede duen bigarren ariketa honen emaitzak. Herritarrek eginiko **2669 ekarpen** jaso dira. II. Eranskinetan, partaidetza prozesuan kodetutako eta kuantifikatutako ekarpenen zerrenda kontsultatu daiteke.



Aurreko ekitaldiarekin erabat bat etorriz –herritarrek jakinarazi dute lehentasuna eman behar zaiola Sustapen Ekonomikoaren, Ingurumenaren eta Lurralde Oreka Departamenduari–, parte-hartzaileen laginak enplegua identifikatu du Gipuzkoako erronka nagusi gisa. **Enpleguari**



buruzko aipamenak etengabe jaso dira bigarren galderan. Honako hauek hartu ditu barne: kalitateko enplegua eta soldata duinak eskatzea, herritarrentzat, oro har, eta gazteentzat, zehatzago.

Bigarren lekuan, **hondakinen kudeaketa** da etorkizuneko erronka nagusietako bat, erraustegiaren aurkako oposizioa eta birziklatzea alternatiba gisa aintzat hartzea barne. Hirugarren lekuan, **gazteriak** hartzen du leku garrantzitsua, estratu horretarako enplegua sortzea, gazteen emantzipazioa eta etxebizitzarako sarbidea, prestakuntzaren eta inbertsioa hobetzearen aldeko apustua, eta gazteentzako aukerak.

Laugarren lekuan daude **ingurumena**, jasangarritasun ekologikoa edo klima aldaketa, eta, horien ondoren, aberastasuna eta enplegua ekarriko duen garapen ekonomikoa bermatzeko politikak. **Iruzuraren eta ustelkeriaren kontrako borroka** bosgarren lekuan dago erronka gisa, eta **gizarte politiken garapena eta bultzada** (egoera zaurgarrian dauden biztanleen sektoreetarako gizarte zerbitzuak barne), seigarren erronka gisa.

100 ekarpen baino gutxiagotan aipatu da honako hauetan sakontzeko beharra: elkarbizitza eta aniztasuna, euskararen sustapena, azpiegituren garapena, mugikortasuna eta garraio publikoa, berdintasuna, lana eta familia uztartzea, gizarte ongizatea, turismo jasangarria, eta adinekoei eta mendekotasuna duten pertsonen bideratutako laguntzak.

50 ekarpen baino gutxiago egin dira hauen aldeko apustua egiteko: hezkuntza, gobernu irekia, industria, kultura, zientziaren eta berrikuntzaren sustapena, etxebizitzarako sarbidea, jaiotza-tasa eta zahartzea, nekazaritza eta arrantza, fiskalitatea eta zorra, osasun arloa, gizarte prestazioak, administrazio publikoa, politika, enpresak, lurralde oreka, independentzia, autonomia, bidegorriak eta autonomoak.


Azkenik, 10 ekarpen baino gutxiago zenbatu dira energiari, kirolari, merkataritzari, ostalaritzari eta espazio publikoari buruz.



3.2.3 Galdera (3): Honako zein 3 esparrutan nahiko zenuke Aldundiak inbertsioak egitea?

Hirugarren eta azken ariketari dagokionez, partaidetza prozesuaren esparruan gehien hautatu dituzten hiru jarduketa-ildoak hauek izan dira: **Sustapen ekonomikoa eta enplegua (1448 hautapen)**, **gizarte zerbitzuak (1415 hautapen)** eta **iruzurraren aurkako borroka (896 hautapen)**. Berriz ere, sustapen ekonomikoa eta gizarte zerbitzuak dira nagusi gainerako aukeren aurrean, kualitatiboki nahiz kuantitatiboki.

Jarraian, ariketaren emaitzak zehazten dira grafiko honetan, herritarrek emandako lehenetasunarekin bat etorriz. Bertan, laginak gehien hautatu dituen jarduketa politikoaren hiru ildoak bereizten dira, gainerako kategorien aurrean:





4. ONDORIOAK

Aurrekontu Irekiak 2018: herritarrek enpleguaren eta gizarte politiken alde egiten dute.

Maiatzean eta ekainean, aurrekontu irekien partaidetza prozesuko parte-hartzaileen laginak (2.896 pertsonak) nabarmen eta modu esanguratsuan eman diote lehentasuna enpleguaren eta gizarte politiken aldeko apustuari.

Lehenengoaren kasuan, oro har sustapen ekonomikora bideratutako politiken garapenari eta zehatzago enplegua (egonkorra, duina eta kalitatekoa) sortzeari dagokionez, horixe izan da partaidetza ekimenaren esparruan eta gizarte zibilarekin eginiko topaketetan (*topaketak*) proposatutako hiru ariketetan gehien errepikatu diren eskariak.

- a) 2018ko aurrekontuetarako ekarpenak egiteko ariketan, 871 ekarpen sustapen ekonomikoari buruzko aipamenak izan dira.
- b) Bigarren ariketan (etorkizunerako erronkak), enpleguari buruzko 469 ekarpen egin dira.
- c) Hirugarren galderan (jarduketa-ildoei lehentasuna ematea), sustapen ekonomikoa eta enplegua aukeratu dituzte 1.448 pertsonak.
- d) Topaketetan, askotariko entitate eta erakundeek nagusiki lurraldean sustapen ekonomikoari lehentasuna ematearen aldeko apustua egiten zutela jakinarazi zuten (73 ekarpen jaso dira aktan).

Nabarmenezkoa da kodetutako ekarpenen kopuru esanguratsu batek gazteei zuzendutako politiken eta enplegu programen alde egiten dutela, baita biztanleria estratu zehatzei zuzendutakoan alde ere, hala nola autonomo lana duten pertsonen eta 35 urtetik gorako pertsonen. Era berean, lehiakorrak diren eta kontratazio estentsiboaren programak bultzatzen dituzten enpresei eta industriari laguntzeko beharra helarazi dute. Horri dagokionez ikus daitezke oso eginkizun garrantzitsua izan dezaketela lurraldearen garapen ekonomikoa, besteak beste, arlo hauek lantzeko programek: ekintzailtza, berrikuntza teknologikoa, I+G+b, fabrikazio aurreratua eta Industria 4.0. Hala, talentuek ihes egitea saihestuko dute, eta biztanle gazteenen ongizate sozioekonomikoa bultzatuko dute.

Gizarte Politiken esparruan egon dira eskari gehien ekimen parte-hartzailearen lehen ariketan (836 ekarpen) eta hirugarren ariketan (1.515 hautapen). Topaketak ekimenen ere bigarren lekua hartu zuen lehentasunari dagokionez (42 ekarpen jaso dira aktan). Parte-hartzaileen laginak lehentasunezkoztat jo ditu honako hauek: egoitzen sarea handitzea eta ratioak hobetzea, etxeko laguntza, eguneko zentroak eta babespeko etxebizitzak. Halaber, herritarrek helarazitako ekarpenak aintzat hartuta, sarritan errepikatzen dira honako hauek: adineko pertsonentzako,



mendekotasuna duten pertsonentzako eta aniztasun funtzionala duten pertsonentzako gizarte zerbitzuak zabaltzea eta gizarte babesa ematea. Lan arloan gizarte zerbitzuekin lotura duten langileek haien kopurua handitzearen, haien prestakuntza profesionalizatzearen eta arreta hobetzearen aldeko apustua egiten dute, kalitateko gizarte zerbitzuak lortzeko.

Emaitzak aztertu eta diagnostikoa egin ostean, bi arazo nabarmendu behar dira: immigranteentzako gizarte laguntzak eta erraustegia. Alde batetik, jasotako ekarpen askotan, eskari hauek egiten dira: oro har ematen diren gizarte laguntzak, eta zehatzago, beste jatorri nazional bat duten herritarrei ematen zaizkienak, kontrolatzea eta zaintzea. Eskari hori askotan errepikatu dute Gizarte Politiken esparruan, eta, neurri handi batean –analisi kualitatibotik ondorioztatzen den moduan–, iruzurraren aurkako ekarpen asko. Hala, gogorarazi behar dugu iruzurraren aurkako borroka hirugarrena izan dela hirugarren ariketan gehien hautatutakoen artean (896 hautapen), eta zeharka ageri dela lehenengo eta bigarren ariketa egin duten herritarrek helarazitako diskurtsoan.

Bigarren lekuan, erraustegiaren aurka egotea nabarmendu behar da parte-hartzaileen laginak helarazitako arloen artean. Hondakinen kudeaketa eta ingurumenarekin loturiko jarduketatildoa lehentasun gehien duten esparruen hirugarren lekuan daude bigarren ariketan, eta laugarren lekuan, hirugarren ariketan. Gainera, lehenengo ariketan, erraustegiaren aurkako jarrera nabarmendu egin da Ingurumen eta Obra Hidraulikoaren Departamenduak kuantifikatutako ekarpenetan, eta zeharka ageri da beste departamendu batzuetan, Gipuzkoan eraikuntza azpiegitura handiak eraikitzearen eta egituratzearen aurkako iritzien bidez. Erraustegiaren aurka daudenek balorazio negatiboa dute, herritarren osasunean eragina duelako, segurtasun falta sortzen duelako, eta gainkostua dakarrelako. Halaber, herritarren laginaren zati batek nabarmendu du birziklatzea dela erraustegi planta ez instalatzeko alternatiba, eta hori bultzatu eta sustatu behar dela. Prozesuan zehar nabarmendu diren diskurtsoaren bi ildo horiek aintzat hartuta, gomendatzen da informazio kanpainak martxan jartzea, egon daitezkeen aurreiritziei edo desinformazioari aurre egiteko, eta inguru sozialarekin, integrazioarekin, dibertsitatearekin eta hondakinen kudeaketarekin lotuta herritarrek izan ditzaketen zalantzak argitzea.

Enplegu eta gizarte politikez gain, herritarrek hainbat ekarpen egin dituzte honako hauek hobetzearekin lotuta: garraio publikoa, bidegorrien sarea, errepideen mantentze-lanak eta hobekuntza, pantaila akustikoak, lehen sektorea bultzatzea, baserritarrentzako laguntzak, ingurumena babestea eta defendatzea, mendiak eta ibaiak garbitzea, kultura bultzatzea, gazteria eta kirola, turismo jasangarriaren eta dibertsifikatuaren aldeko apustua egitea, euskararen sustapena, generoaren berdintasuna, lanaren eta familiarren uztartze eraginkorra ahalbidetzeko politikak, gobernu irekia eta erakundeen gardentasuna, besteak beste. Katgoria horiek elkarren



artean lotuta egin dira, bigarren ariketaren emaitzekin bat etorriaz erronka moduan, eta, hirugarrenean, jarduketa politikoaren ildo gisa.

Prozesuan zehar aipatutako herritar talde ezberdinak aztertu ondoren, pertsona gazteak nabarmentzen dira modu estentsiboan eta zeharkakoan, bai lehen ariketan, bai bigarren ariketan. Enpleguaz gain, oro har, ekarpen ugari gazteak dituzte jomugan talde giltzarri gisa lehen sektoreko belaunaldi erreleboa bermatzeko, eta estratu honetan inbertsio handiagoa ziurtatzeko beharra dagoela aintzat hartzen da: deskontuak gazteentzat garraio publikorako sarbidea izateko, autobusen maiztasun handiagoa, aisialdian, kulturean eta kirolean inbertitzea, prestakuntza programak, ikasteko bekak eta etxebizitzara sartzeko eta emantzipatzeko laguntzak.

Azkenik, gogorarazten dugu Aurrekontu Irekiak 2018 partaidetza ekimenaren prozesuak kaudimena eta bermeak dituela, eta parte hartzeko aurrez aurreko kanalen bidez nahiz askotariko kanal birtualen bidez, herritarrek 7.000 ekarpen baino gehiago egin dituztela. Zehazki, aurrez aurreko kanalen (Herriz Herri kanpaina) bidez egin da ekarpenen kopuru handiena (% 83), partaidetzarako karpei esker. Ondoren, Aldundiaren webgunean jarritako galdetegi birtualak (% 8), gizarte zibilarekin eginiko topaketak (Topaketak) (% 6), eta Foru Erakundeari zuzenean igorritako galdetegiak (% 3) aipatu behar dira. Hortaz, generoaren ikuspuntutik begiratuta, lagina batez ere emakumeek osatu dute (% 58), eta parte-hartzaileen batez besteko adina aintzat hartuta (48,6 urte), banaketak adierazten du adin tarte guztietako pertsonak hartu dutela parte. Hala, emaitzak neurri handi batean Lurralde Historikoko herritarren sentimenduekin bat datozela ikus daiteke.



5. GIPUZKOAREKIN DUGUN KONPROMISOA

Beste urte batez, Aurrekontu Irekiak 2018 partaidetza prozesuaren harira, lortutako emaitzen berri emango da, eta Aldundiak herritarren eskaerei erantzuteko hartuko dituen zenbait konpromiso onartuko dira. Ondorengo urratsetan, prozesuaren emaitzen eta mugarren berri emango zaie prozesuan parte hartu duten herritarrei, baita Gipuzkoako herritar guztiei ere. Hala, martxan jarritako partaidetza prozesuari eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bideratutako entzute aktiboaren ekimen honen bidez jasotako herritarren ekarpenei balioa emango zaie.

Horrenbestez, Gipuzkoako Foru Aldundiak partaidetza prozesuko emaitzen berri emateko, eta jasotako herritarren eskariak aztertzeko nahiz erantzuna emateko konpromisoa hartuko du. Gainera, erakunde honek Aurrekontu Irekiak 2018 ekimenaren esparruan prestatutako partaidetza prozesutik eratorritako proiektuen nahiz lehentasunezko jardunbideen betetze-mailaren inguruko kontuak modu eraginkorrean jakinarazteko konpromisoa hartuko du.

Partaidetza prozesu honetan Departamentuei helarazitako herritarren ekarpen guztiak kodetu eta aztertu ondoren jarriko da martxan herritarrei kontuak emateko eta konpromisoak itzultzeko prozesua. Zehazki, ekarpen guztiak bat datozen egiaztatuko da, 2018rako aurrekontuak behin betiko onesteko, eta egindako ekarpen guztietarako hartu diren konpromisoak itzultzeko faseari ekiteko.

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa




ORAIN
GIPUZKOA



I.ERANSKINA

EKARPEN ZERRENDA


Zeintzuk dira 2018ko Aurrekonturako zure proposamenak?



I. ERANSKINA


Ekarpenen zerrenda

[4734 ekarpen¹]



¹ **Ohar metodologikoa:** helarazitako informazioa zein diskurtsoaren tonua babesteko helburuz, ondoren islatzen diren adierazpenek zehatz-mehatz eutsi diote jasotako ekarpenen hitzez-hitzekotasunari (multzokatuak izan ezik). Hori dela-eta, ez da egin zuzenketa ortografikorik ez gramatikalik galdera irekien kategorizazioan (euskaraz zein gaztelaniaz) eta modu horretan bermatu da herritarren pertzepzioak itxuraldatzerik gabe ikusarazten dituen analisi bat.

1. DIPUTATU NAGUSIAREN ALORRA (356 EKARPEN)



1.1. Euskera (132)

- Euskararen erabilera sustatzeko ekimenak (orokorrak) (hizkuntza berdintasuna) (80)
- Euskara ikasteko laguntzak eta euskara ikastea sustatzea (19)
- Euskara sustatzea Administrazio Publikoan (12)
- *Herri komunikabide euskaldunak sustatzea. Paperezkoak eta herrikoak, ez bakarrik bailara mailakoak edo online formatuan* (3)
- *Teknologia berrietan euskararen erabilera* (3)
- *Euskara instituzio eta esparru guztietan (teknologia berrietan)* (2)
- *Kanpainak, eskolak, jarduerak immigranteek euskara ikasi ahal izateko* (2)
- *Euskara herrikoa (dialektoak) bultzatu, mantendu.*
- *Inguru honetan (Asteasu) euskara ikasteko baldintzak hobetzea (online ikaskuntza)*
- *Euskara bultzatu eta hitz egiteko kanpainak. Hiritar guztientzako, bai hemengo nahiz etorkinak. Euskaraz dakitenak nahiz ez dakitenak.*
- *Ikastaroak, programak immigranteek euskara ikasteko.*
- *Ekitaldi gehiago euskararen alde*
- *Atzerritarrek euskara ikasteko programak. Sakontze ikastaroak.*
- *Euskara sustatzea; horrela, euskara hitz egiten ez duten enpresariak diskriminatzen dira.*
- *Euskara gehiago sustatzea gazteetan*
- *Euskara ikasteko telebista programa*
- *Gurasoek euskara hitz egiteko ekintzak bultzatu.*
- *Donostian, ausartak izan hizkuntzarekin (diskriminazio positiboa egin behar da) zeren euskara zeharo ahulagoa da. Elebitasuna utzi egin behar da.*

1.2. Kontziliazioa (89)

Kontziliazio politikak (86)



- *Kontziliazio laguntzak eta politikak sustatu - Benetako kontziliazioa (60)*
- *Laguntzak ematea enpresei kontziliazio politikak bultzatzeko (10)*
- *Amatasun eta aitatasun baja luzatzea (9)*
- *Aitatasun eta amatasun bajak guztientzat egun berdinak izatea eta ezin uko egitea (2)*
- *Derrigorrezko aitatasun baimena*
- *Parekidetasunean aurrera egin behar da.*
- *Lanaldi laburtzeak gizon eta emakumeentzat.*
- *Laguntza gehiago eszedentzian dauden eta haurrak zaintzeko lanaldi-laburtzea duten amentzat.*
- *Kontziliazio legeak humanizatzea eta berdintasunean lan egitea.*
- *Beharrezkoa da bat egitea haurtzaindegiak, "casas amigas" eskuragarriak, etab.*
- *Kontziliazioari dagokionez, amatasun baimenak luzatu eta diru-laguntzak jasotzeko aukera izatea murrizketarekin lan egiten duzun urte guztietan. Nik, adibidez, ia ez baitut diru-laguntzarik jasotzen murrizketarekin lan egiteagatik.*
- *Laguntzak langileentzat seme-alabak zaindu ahal izateko, kontziliazio arazo bat edo arazo ekonomiko bat izan gabe. Ordutegi malguak eta guraso eta seme-alaben ordutegiek bat egin dezatela saiatzea. Feminista eta matxista adjektiboak gainditzea, balio berdintasunean hezteka, denok pertsonak gara.*

Beste proposamen batzuk (3)

- *Beharrezkoa da garapen demografikoa indartzea, seme-alabak eduki ahal izatea eta zaindu ahal izatea erraztuz.*
- *Ama langileentzako laguntzak hobetzea, zeren gaur egungo laguntzak lotsagarriak dira.*
- *Legedia edo araua ezartzea haurdunek eszedentzian egon ahal izateko haurrak 3 urte bete arte, Finlandian bezala. Horrek seme-alaba gehiago izateko bikote batzuen nahiari mesede egiten dio. Seme-alaba horiek ondo zaindu eta heziko dira eta herriei gizarte segurantzian ekarpena egingo die komunitateen hazkundea sustatuz*

1.3. Berdintasuna (63)

- *Berdintasun politikak sustatu, genero berdintasuna (39)*
- *Berdintasuna: Soldata zuloa kentzea (9)*
- *Indarkeri matxistaren kontra kanpainak (2)*
- *Bananduta, haurrekin eta lanik gabe dauden hemengo emakumeentzat diru laguntza gehiago (2)*
- *Bizitzako arlo guztietan (ekonomikoki ere) berdintasuna eta errespetua*
- *"Tradizionalki" gizonen lanak izan diren horietara emakumeen sarbidea sustatzea.*
- *Emakumeen etxe duin bat, zentzuzkoa eta feminista (Urretxu)*
- *Emakumeei erabakietan parte-hartze gehiago eman*
- *Etxeko laguntza areagotzea*
- *Alardeari irteera berdinazalea*
- *Irungo eta Hondarribiko alarde mistoa normalizatzea*
- *Transexualitatea eta genero aniztasuna ikastoletan umeentzako jorratzea.*
- *Eskola liburuak eta informazio publikoa hizkuntza neutroan idatz daitezela, generorik gabe.*
- *Berdintasun politikak haurrentzat, jatorri eta maila sozioekonomiko desberdinetako haurrak, espazio komunetan (aisialdia, eskola kirola, etab.)*
- *Kopuru berdina diru-laguntza ematea, bai gizonentzako, bai emakumeentzako*

1.4. Gobernu - organoak(48)

Foru kudeaketa (44)

- *Ezberdintasun gutxiago (3)*
- *Politikariak (iruzurra) eta erakunde publikoak (eredu izatea) kontrolatzea (5)*
- *Azpiegiturak amaitu (8)*
- *Gaur egun udal herriak diru aldetik dituzten arazoei aurre egiteko diru gehiago banandu (3)*
- *Eskualdeka lehentasunak finkatu (2)*
- *Inbertsio arduratsuak sozialki errentagarriak (2)*
- *Gastu sozial gehiago (2)*
- *Efikazia eta efizientzia. "Kudeaketa bikaina".*
- *Animaliak debekatu jaietako ekitaldietan.*
- *Berdintasun soziala.*
- *Klase politikoa kontrolatzea*
- *Dirua modu desberdinean inbertitzea.*
- *Nafarroarekin harremanak estutzea*
- *Aldundiko langileen baldintzak edo soldatak errespetatu*
- *Bidegabekeri sozial eta aurrerabide sozialaren aurka egitea*
- *Erronken inguruko aurrekontuak.*
- *Egin behar dena egitea dei efektua desagertzeko*
- *Konpetentzien istilua konpondu eta horren arabera diru laguntza gehiago beharko ditugu*
- *Krisia izan dugularik, baztertu egin direla neurri batean uste dudalako. Gastua handitu ahal den neurrian gizarte zerbitzuetan eta azpiegiturretan.*
- *Gure eskubide konstituzionalak egiazki betetzea: etxebizitza, enplegua, mugikortasuna eta behar energetikoak.*
- *Aurrekontuak hobeto inbertitu eta banatzea, zeren oraindik asko dago egiteko eta hobetzeko*
- *Kargu publikoak % 50 murriztea eta diru hori interes sozialerako bideratzea*
- *Aurrekontuak proiektatuta dauden eran oso ondo daudela iruditzen zait, leloa betetzea gustatuko litzaidake: "guztiok ematen dugunak guztioi egiten digu on"*
- *Lehenengo oreka bilatu teknologia berri eta gizartearen garapena ondo finkatzeko eta jasangarritasuna lortzeko.*
- *Hiru lurraldeko LTHa oztopoa da zerbitzu bera emateko. Egoerak oso desberdinak dira.*
- *Hiru administraziopean daude gizarte zerbitzuak (Udalak, Aldundiak, EJ) koordinatu beharra dago. Jaurlaritzak koordinatzea proposatzen dut."*

Deba (4)

- *Debari arreta gehiago jarri (4)*

1.5. Bizikidetasuna (19)

Bizikidetasuna eta aniztasuna (12)


- *Bizikidetasun eta Giza Eskubide, Justizia, Bake... politikak (7)*
- *Inklusio politikak arrazismoaren aurka eta dibertsitatearen alde (7)*
- *Paperik gabe datorren etorkinei, bideratu lan dezente bat lortzeko, legez barru (2)*
- *Errefuxiatuei laguntzak ematea.*
- *Arabiar eskola haurrentzat eta adinekoentzat*
- *Laguntzak berdinak izan daitezela bai immigranteentzat bai bertakoentzat.*
- *Immigranteak zaindu eta aztertzea. Haien kultura, ideologia. Gurearekin bateragarria den ikusteko.*



1.6. Beste batzuk (5)

- *Ez zait gustatzen egiten duzuen gauzak bezala.*
- *Handiusteko programak lehenesten dira eta diru asko horretan joaten da (adibidez Bidaiatu ekimena). Diru hori herriari eman bertan antolatzeko.*
- *Elkartzea "errepide azpiegiturak", "ingurumena eta obra hidraulikoak" eta "mugikortasuna eta lurralde antolamendua". Ez dauka zentzurik arazo sistematiko bat banatzeak, konplexua eta interrelazio askorekin eta zeharkako efektuekin.*
- *Lankidetzaren handiagoa gainerako aldundiekin, esaterako, garraioan txartel berdina erabili ahal izatea, autobideetan deskontuak erkidego guztietan, etab.*
- *Lapurtzeko modu asko daude. Beharrezkoak ez diren proiektuak edo gaizki egindako proiektuek arduradunak izan behar dituzte, eta edozein arazo izanez gero, arduradun hauek ordaindu behar dituzte ondorio juridiko, ekonomiko... guztiak, ez herritarrek. Ikerkuntzak eta proiektu estudioak zerbaitetarako daude. AHTko tunelak larrialdiko irteerarik gabe? Norentzat da negozioa?*

2. KULTURA, TURISMO, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA (412 EKARPEN)



2.1. Kulturaren sustapena (157)

Liburutegiak eta kulturaren hedatzea (72)

- *Kultura bermatzea eta sustatzea (41)*
- *Euskal kultura bultzatu (8)*
- *Antzerkia, musika (5)*
- *Herrietan eskaintza kulturala handitzea - Aisialdi-kulturaren inbertitzea herri txikietan, ez soilik hirietan (5)*
- *Kultur ekitaldientzako diru-laguntzak lurralde osoan orekatu (ez bakarrik Donostia aldean) (2)*
- *Euskal artistak sustatu (2)*
- *Kultura: zinea*
- *Kultura: liburu eta musika*
- *Gehiago kontzientzia kultura behar dela.*
- *Herri kultura sustatzea eta ez elite kultura.*
- *Kultura bultzatzeko ekintza gehiago jarri martxan*
- *Kulturaren inbertitzea eta hezkuntza ereduak hobetzea*
- *Aisialdia sustatzea*
- *Kultura eta prestakuntza/bekak*
- *Benetako kultura*
- *Ostatu + jarduera kulturalak*

Proiektu kulturalak: proposamen orokorrak (24)

- *GAZTEMATIKA sistema indartzea, herrietarako ludoteka eta gazteleku zerbitzuak martxan jarri edo sendotzeko.*
- *Euskal kulturaren sakontzea folkloretik haratago*
- *Prebentzio eta eskolako bullying-aren (jazarpena) kontrako proiektuak ezartzea*
- *Herriko liburutegiei diru-laguntzak liburu eta ordenagailu gehiago erosteko.*
- *Sormena, bitartekaritza eta hezkuntzarekin lotura proiektuei lagundu*
- *Ekintza kultural gehiago (musika)*
- *Erakusketak herriz herri ekarri (foru aldundikoak)*
- *Kulturari eta euskal komunikabideetan inbertitu*
- *Herri bakoitzeko kultur taldeak sortu eta bultzatu.*
- *Herrietako taldeak lagundu gehiago (musika, antzerki...)*
- *Balio handiagoa ematea musika klasikoari*
- *Kultura: artista ospetsuen erakusketak sustatzea.*
- *Proiektu kulturalak immigrazioa integrazioa*
- *Komunikabide publikoen kalitatea hobetzea.*
- *Hezkuntza, osasun eta kultura sistema hobetzea*
- *Gehiago inbertitzea ikus-entzunezko gaitan, enplegua sustatuz.*
- *Artistei, langabeei bideratutako diru laguntzak pertsonetara irits daitezela esparru zabalago eta eskuragarriagoen bidez.*
- *Erabiltzen ez diren espazioak berreskuratzea artistei pintura erakusketak egiteko, kontzertuak emateko, poesia errezitaldiak, etab. eskaintzeko. "pertsona argi asko dago alferrik galduta". Bekak musika, pintura... ikertzeko, laguntzak instrumentuak, materiala, etab. erosteko.*
- *Kultura eta arte eszenikoak: bai antzerki bai dantza garaikidea Donostia Erreteriatik Goierriera deszentralizatu*
- *Kultura: herrietan egiten den jarduera sustatu. Mundura begirako kultur jarduera beharrezkoa da baina sostengua maila apaleko jarduna da.*
- *Kultur eritasmoetako diru-laguntzak krisi aurreko kopuruetara itzultzea (eta hortik Aurrera KPIaren arabera mantentzea)*
- *Kulturaren alde gauza askoz gehiago egitea, Deban inguru asko daude marrazkiak... egiteko. Dauden kultura esparru guztiak gehiago sustatzea, dantza, musika, pintura.. Diru-laguntza gehiago ematea haiek sustatzeko*
- *Gipuzkoak duen ondarea gerturatzea jendeari: badirudi Gipuzkoak ez duela inongo ondare historikorik. Bertan egindako guztiak inongo balorerik ez duela dirudi. Eta ez da horrela. Euskal telebista piztu behingoz eta egin dokumental batzuk, hurbildu jendea bai ondare edota baita kulturalari ere. "historiarik gabeko herri batek ez du sustrairik". "herri bat menderatzeko bere historia eta aztarnak ezabatu behar dira" ba egoera hori irauli.*
- *Euskal folklore berreskuratze saiakera: Euskal kultura ezaugarritzen duten zenbait ohitura/usadio berreskuratzea. Haiekin batera, boladan jartzeko saiakera ondorengoak: betiko Euskal kantuak, betiko Euskal dantzak, berreskuratze ohitura zaharrak, Euskal poesia, bertsolaritza (bertsolaritzaren inguruan mugitzen den ostalaritza etab). Hori dena, bai hemen, baita hemendik kanpo ere (ikus errepublika garaian EJK egindako ekitaldiak, sorturiko mugimendua (adib Ereinsoka) etab).*

Kultura Bonua (19)

- *Kultura bonuaren kopurua handitzea (19)*

Kulturari sarbidea (30)

- *Biztanle jakinei (gazteak, adinekoak, etab.) zuzendutako kultura. (17)*
- *Kultura merkeago. Ikuskizun, liburu eta abarren prezioak (9)*
- *Zineak eta ikuskizunak doan iraupen luzeko langabeentzat*
- *Babesa gehiago eta mamitsuago ekintza kulturaletarako*

- *Kulturarako diru gehiago; dantza, antzerkia, literatura lagundu*
- *Diru gutxiago kirol profesionalentzat kultura eta euskara gehiago.*

Proiektu kulturalak: proposamen espezifikoak (12)

- *Jarduera kulturalak bi hizkuntzetan eta eskaintza baita gaztelaniaz ere (3)*
- *Zinema Bergaran*
- *Bergarak duen ondasun arkitektonikoa kultura (museo-laboratorium, jauregiak...) ezagutarazi kanpora. Txangoak antolatu gazteek ezagutzeko.*
- *Antzokiren bat jartzea ere falta da, pelikularen bat eman ahal izateko (Bergara)*
- *Diru laguntzak Deban ere kultur areto bat izateko!*
- *Jarduera kultural gehiago Arrasaten.*
- *Gazteentzako kultura proiektu gehiago (Goierrin)*
- *Sormena sustatzea, espazio egokiak sortzen direla sustatuz. Adibidez: Urola Garaiko ondare industrial abandonatua erabiltzea kultura sehaskak sortzeko.*
- *Pasaia destino kulturala. Motor birsortzaile gisa balioko duten proiektu kulturalak. Beharrezkoa eta justua izango litzateke.*
- *Donostiako jarduera kultural handiak beste herrietara deszentralizatzea edo jarduera kultural gehiago sustatzea herrietan.*

2.2. Gazteria (89)

Gazteentzako politikak eta laguntzak (33)

- *Gazteetan gehiago inbertitu (11)*
- *Diru laguntza gehiago egotea. Gazteetan pentsatzea. (deskontuak, lanean hasteko...) (8)*
- *Gazteak prestatzea balioetan, esaterako, lana, ahalegina... (2)*
- *Gazteria arloa/ gazteria politikak.*
- *Gazte espazioetarako egokitzea*
- *Alkohol - droga prebenitzeko kanpainak*
- *Adingabeak, gizalegezko hezkuntza*
- *LH bultzatu*
- *Gazteak prestatzea balioetan, esaterako, lana, ahalegina...*
- *Gehiago inbertitzea gazteen ekimenetan Irunen, zeren proiektu asko egiten dira hirugarren adinerako baina ez dago ezer gazteentzat.*
- *Uda-garaian hondartzetan umeekin (adingabeak) ez sartzeko ordurik txarrenean, begiraleak jartzeko diru-laguntza kostako-herriei*
- *Txikitatik teknologiarantz bideratu ditzagun. Teknologia berriak sustatu zentroetan eta irakasleak berritu.*
- *Gazteei hitzaldi eta hezkuntza gehiago ematea homofobia, xenofobia eta matxismoa guztiz ekiditeko*
- *Arlo bakoitzean programa espezifikoak bultzatu. Gazteentzat laguntzak ezarriz eta esparru ezberdinetan euskaraz lan eta bultzatzeko baliabideak ezartzeko*
- *Gizarteak gazteriarantz transferitzen dion lehiakortasun beharra eta hauek frustrazioa kudeatzeko erabiltzen dituzten bideak lantzea. Gaur egun sarritan droga baita gazte hauen alde egiteko modua. Espazio bat gauzatzea, bertan gazteek prestatzeko begirale titulazioa lortzeko edo boluntariotzarako prestakuntza jasotzeko eta praktikak leku horretan egiteko. Horrez gain, espazio horrek aterpetxe gisa ere balioko luke. Horrela, hainbat beharrei arreta emango dien zerbitzu bat eskainiko litzateke.*

Prestakuntzarako beka eta ikaskuntza (23)

- *Laguntza ekonomiko gehiago beketarako - ikasketak egiteko diru laguntza gehiago (18)*
- *Gazte prestakuntza. Prestakuntza etengabekoa.*
- *Atzerriko ikasketak/lanak erraztea*



- *Unibertsitatekoa ez den bekarako adinaren baldintza uste dut aldatu egin behar dela, zeren baldintza zen 23 urtetik behera izan behar zirela. 30 urtera artekoa izan behar du.*
- *Gehiago laguntzea gazte talentuei beren prestakuntzan; atzerrira joan beharrik ez izateko, hori gure herria pobretzea da.*
- *Informazio eta prestakuntza asko. Inbertsioa gazteentzat, bai hezkuntzan bai gizartean parte har dezatela sustatzen.*

Aisia (22)

- *Gazteriarentzat ekintza gehiago prestatzea (8)*
- *Gazteentzat udalekuak merkeago eta ugariago (4).*
- *Aisialdirako gune gehiago gazteentzat.*
- *Udaleku dibertigarriak.*
- *Gazteentzako guneak Eibarren, zeren ez dago halakorik.*
- *Haurren aisialdirako tokiak hobetzea.*
- *Ludoteka bat (Deba)*
- *Jarduera gehiago haurrentzat.*
- *Zentro gehiago haur, gazteentzat.*
- *Planak gazteentzat udan, udalekuak, kirola...*
- *Areagotzea baliabide ekonomiko gutxiko haurrentzako diruz lagundutako aisialdirako eskaintza. Baita eskolaz kanpokoak ere. Programak gazteentzat.*
- *Gure herriak belaunaldi berrien prestakuntza eskatzen du. Ikasle onentzako euren bidea jarraitzen animatuko dituzten profesional ezagunen hitzaldiak, aisialdi sanoa, prestakuntza, dena bat: prestakuntza udalekuak*

Beste Batzuk (6)

- *Parkeak estaltzea.(2)*
- *Haurren parkeetan iturriak*
- *Hautzaindegi gehiago eta malguagoak ordutegiaren aldetik.*
- *Gazteen aterpetheen erabilera optimiza dadila, behar den aurrekontua emanaz*
- *Kontzientziazio kanpainak gazteentzat espazio publikoak ez zikintzeari buruz (botiloia)*

Etxebizitza (5)

- *Gazteentzako alokairua eta etxebizitza sustatzea (4)*
- *Gazteentzako diru laguntza gehiago, hau da, etorkizunean errazago izateko etxetik joatea eta erraztasun gehiago izateko independentzia izateko. Alokairurako laguntzak gazteentzat horniduren gaitan*

2.3. Kirolak (74)

Kirolaren sustapena (35)

- *Eskola kirola sustatu edozein kirolean (5)*
- *Bideak paseatzeko egokitzea (3)*
- *Kirol minoritarioa (7)*
- *Diru laguntzarik ez ematea futbol profesionalari, tauromakiari edo animaliak gaizki tratatzen diren edozein ikuskizuni (3)*
- *Kirola osasuna lantzeko tresna bezala erabili.(2)*
- *Kirol gehiago sortzea*
- *Altza kiroldegia hobetu, denbora gutxiagoan egin.*
- *Herri txikietako diru laguntzak handitzea, kirolean.*

- *Kirol eraikinak libreak eta dohainekoak gazteentzako.*
- *Ibaiak aprobetxatzea aisialdirako eta ur kirolletarako guneak sortzeko.*
- *Kirol arloan diru gehiago inbertitu.*
- *Gazteentzako kirol proiektu gehiago (Goierrin)*
- *Kirolari aurrekontu gehiago.*
- *Ez litzateke soberan egongo duela urte batzuk izan zen ideia bat: txartel berdinak Gipuzkoako edo eskualdeko kirol instalazio guztietarako sarbidea ematea"*
- *Mountain bike hobetzea, kirol hau egiten duten pertsona asko daude, baina baldintza batzuk direla eta ezin da behar bezala aritu kirol horretan.*
- *Adin talde, gaitasun ekonomiko eta ez gaitasunaren jardura fisiko eta kirola sustatzeko programak egitea.*
- *Kirolletan inbertitzea (kotxeak eta motorrak)*
- *Kirolean diru gehiago, Gipuzkoan da ehiztari gehien dagoen lekua, hau dela eta diru laguntzak edo tiro plato leku gehiago non ehiztariak egon daitezzen . Nire ustez bertan dirua irabaz ditzake foru aldundiak.*
- *Ariketa sustatzea landa eremuetan zurarekin, sokekin material naturalekin egindako aparatuekin (Halaber, parke handiak beso eta hanketako ariketak, abdominalak, sentadillak, birak, etab. egiteko adinekoentzat eta gazteentzat)*
- *Toki batzuetan kirol-txapelketa afizionatuak martxan jarri zeren kuadrillen funtsa da niretzat eta oso ondo datoz (aisia, laguntasuna, jardura sanao...).*

Kirol azpiegiturak: proposamen espezifikokoak (28)

- *Ur kirolentzako eraikinak (Deba) (5)*
- *Anoeta berria.(2)*
- *Kirol instalazioak Legorretan.*
- *Kirol instalazioak berritzea (Eibar)*
- *Igerileku estalia (Mutriku)*
- *Itsasoko ura igerilekua estalita (Mollaberri atzean)*
- *Kirolgune berria (Mendaro)*
- *Rokodromo txukuna kiroldegian eta ur bizietako kanala Leitzaranen*
- *Zirkuitu bat, gertuenekoa Nafarroan dago, ez banago oker*
- *Kirol instalazio gehiago aire zabalean*
- *Kiroldegi gehiago jarri.*
- *Trinket frontoi bat Hernani inguruan.*
- *Atletismorako instalazioak jarri: Itxasmendi ez da nahikoa (Zarautz)*
- *Donostian kirol anitzeko gune bat ezartzea.*
- *Kiroldegi berri bat eraikitzea Altzan (2).*
- *Lasarteko kiroldegia hobetzea.*
- *Gustatuko litzaidake, behingoz, Irunen atletismo instalazio txukunak egitea*
- *Udako igerilekuak egokitzea, 12 hilabetetan erabili ahal izateko Hernanin.*
- *Lur zanpatuzko zirkuitua Donostian korri egiteko. 5 - 10 km-koa.*
- *Andoaingo kirol instalazioak hobetzeko diru laguntzaren bat bideratzea. Allurralde kiroldegia dituen klubetako kirolariek bigarren pista estali bat behar dute, dagoenean ez baitira modu egokian entrenamendu ordu guztiak sartzen. Udalarekin elkarlanean behar den proiektua aurrera eramatea.*
- *Urak gainezka egiten duenean, Hernani errugbiren instalazioak urez bete eta partiduak ezin jokatu eta ezin entrenatu egotea. Ibaia egoera edo instalazio horien egoera hobetzeko zerbait egin beharko litzatekeela uste dut.*
- *Osatzeko Astiko kirolgunea. Inguratu atletismo pista batekin; horrela, korrika egiten duten horrenbeste pertsonen errendimendua hobetuko da. Itxasmendiko txirrindularitza eta atletismo pista estaltzea, Salbiden egin den bezala. Lan bikaina. Vista alegren hiri parke bat egin, parkea eta auzoa lotuz eta Aldapetako urbanizazio berrira eta herrira gerturatuz*

Kirol azpiegiturak: proposamen orokorrak (11)

- *Laguntzak kirol instalazioetarako: igerilekua (2)*

- *Kirol instalazioak hobetzea.*
- *Frontoi berriak*
- *Futbol zelai berriak*
- *Kirol azpiegiturak hobetzea.*
- *Diru-laguntzak udaletxeari kirol instalazioak, igerileku udakoak.*
- *Herrietako kirol zerbitzua hobetu- umeek futbolaz gain beste kirol batzuetan parte hartzeko aukera.*
- *Eskola kirola: partaidetzako helburuak sustatu, desgaitasunak dituztenak barne*
- *Igerilekuak lehenago irekitzea, eta igerileku estaliak herrian lanpostu gehiago sortzeko herrian eta herritarrek bertan uzteko ekonomia inora mugitu gabe.*
- *Proposatzen dut kirol instalazioak dituzten udalerrietako bizilagunei aukera ematea abonua lortzeko, hilabete 1eko iraupen laburrekoak, lan kontuengatik etab. beren herritik kanpo denboraldi luzeak pasatzen dituzten pertsonen kirola egiten jarrai dezaten, garestia izan gabe. Gainera, normalean abonua urtearen hasieran egiten direnez, une horretan kontratu ezegonkor eta/edo aldi baterako kontratu bat duten pertsonen errazago erabakitzea aukera izan dezatela iraupen horretako balioa duen bonu bat erosteko, urte osokoa baino hobeto, lana noiz arte izango duten ez dakitenean eta urte horretan zein baliabide izango dituzten ez dakitenean."*

2.4. Turismoaren sustapena (59)

Turismoa (43)

- *Turismoa sustatu Gipuzkoa osoan (27)*
- *Mutrikuko alderantz oso hondatuta dago. Saturraran hondartza ahaztuta (hondar beltz) (2).*
- *Hotel gehiago*
- *Parkinga autokarabanentzat.(2)*
- *Hobetzea hiri inguruetatik kanpoko jatetxeetako seinaleak; errepidean markatzea ondo egongo litzateke.(2)*
- *Turismoaren gaian. Ez dago aparkalekurik, ezta behar besteko zerbitzurik ere Debaren irudi irekiago bat emateko.*
- *Moru herrixkaren sustapen turistikoa*
- *Kostaldetik barnealdera eramatea. Geoturismoa sustatzea geoparketik kanpo ere*
- *Turismoa orekatu: asko dago alde batzuetan eta gutxi gure aldean.*
- *Ibilbide turistikoak sortzea eta horiek gehiago babestea*
- *Plazak areagotzea erromesentzat.*
- *Gipuzkoarrok Gipuzkoako herri eta txoko ezberdinak ezagutzeko dinamika. Haurrekin egiteko planak, adineko pertsonak elkar ezagutzeko planak, etab. antolatzea maiztasunez. Webgune batean jar daitezke adibidez hileko plan ezberdinak, proposamen moduan, eta herritarrek gonbidatu hori egitera. Dinamika bat sortuko balitz, lagunarte berri bat sortzeko baliagarri izan daiteke (herri ezberdinetako pertsonen artean). Gida lanak egingo litzatekeen boluntarioak izenda daitezke (1).*
- *Hernaniko kaskoko bizilagunei Txotx denboraldiak, Oialume dantzalekuko festak eta gaztetxoan geldialdiak deskantsurako eskubideak urratzen dizkie ostalari batzuen interesen aurrean. Hernani herriak ere turista intolerante batzuen eraginak pairatzen ditu; zuhaitzak, altzairuak, markesinak... hausten baitituzte. Honen guztiaren aurrean, pertsonen masifikazioak ez gertatzeko plan bat sortzea proposatzen dut, bitartean ertzainen presentzia areagotzea eskatuko nuke. Arazoa konpontzeko aukera ezberdinak egon badaude: tabernen ordutegia murriztu, Ibaiondon aparkatzen duten autobusen ordutegia murriztu, herritik kanpo festa atera, ordenantzak betearazi... baina udalak ez ditu aplikatu nahi.*
- *Gustatuko litzaidake kontuan hartzea desgaitasuna turismoarekin integratzeko proiektu bat egitea. Lanpostu baterako sarbidea izateko erraztasunik ez duten pertsonen enplegua sustatzeko*
- *Turismoak dakarren olatua aprobeztatzea hizkuntza gehiago ikasi ahal izateko. Hori bideratu behar du Foru Aldundiak nolabait. Eta bideratu bakarrik ez; sustatu ere bai.*

Turismo sostengarria (16)

- *Turismoa kontrolatzea eta erregulatzea (3)*
- *Turismoa ez sustatu (7)*
- *Aukera turistiko asko daude inguruan*
- *Turismoari dagokionez, Bartzelonan egin duten bezala, Donostian sartzen den turista bakoitzak tasa bat ordaintzea*
- *Donostia ez dadila saldu turismorako*
- *Turismo "jasangarri"bat, gero eta gehiago dago eta hau kontrolatzea (2)*
- *Legez kontrako pisu turistikoak kontrolatzea (hiriko pisuen % 75ek ez daukate lizentziarik eta tokiko araudia ez dute betetzen).*
- *"Pisu/ostatu turistikoak arautzea, hiriaren "" turistifikazioa"" saihesteko, zeren erdiguneko bizilagunak botako ditu azkenean eta turistek ordeztuko dituzte, beste hiri batzuetan gertatu den bezala. Eta goera honek dakartzan arazoak saihestea.*

2.5. Kultur eta museoen ekipamenduak (24)

- *Txillida Leku berriz irekitzea (2)*
- *Kultur aretoa (Deba) (5)*
- *Zinema edo antzerki leku bat herrian (Deba) (5)*
- *Geoparkea gehiago bultzatzea (2)*
- *Laguntza ekonomikoak ondarea birgaitzeko (museorako kofradia) (Mutriku)*
- *Laguntzak ondarerako*
- *Zinema bat Bergaran*
- *Ludoteka bat eta kultur etxe handiago bat Hernanin*
- *Arrasaten museo arkeologiko bat egin. Badago materiala hemen museoa egiteko*
- *Euskal Herriko Liburutegi Nazionala eraiki Zuberoan.*
- *Donostian Tabakalera dagoen moduan, Gipuzkoak beste zenbait leketan ere zentro kultural bat eskaintzea, gazteak egoteko leku egokia izan daiteke.*
- *Prailehaitz, Ekain... prehistoriaren interpretazio gunea.*
- *Aretorik ez dugu kultura mailan ditugun beharrentzat (Bergara)*
- *Espazio kulturalak hobeto aprobetxatzea. Eduki gehiago.*


2.6. Ondare historikoa eta artistikoa (8)

- *Praileiaiz berreskuratu*
- *Zumaiako San Pedro parrokian Aintzieta eskultorearen erretaula zaharberritzeko pausoak ematea.*
- *Udaletxeari dirua eman ondasuna babesteko*
- *Santa Katalinako begiratokia (biologoa)*
- *Sta. M^a Elizako klaustroko hezetasunak.*
- *Euskal ondarea ezagutzera eman: nor garen, zeintzuk izan ginen, gure sustraiak...*
- *Hirigintza eta kultura ondarea gehiago mantentzea eta berreskuratzea. Ondarea sustatzea eta bisita gidatuak ezartzea. Tokiko kultura ezagutzera ematea.*
- *Orio gaineko autobidearen zubian dekorazio horma bat.*

2.7. Garapenerako Lankidetzak (1)

- *Kooperazioa bultzatu zentzu guztietan (1)*

3. GOBERNANTZA ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUA (64 EKARPEN)



3.1. Funtzio Publikoa (37)

Administrazioa berritzeko eta hobetzeko proposamenak (19)

- *Burokrazia murriztu- Burokrazia arindu (5)*
- *Erakunde garden eta eskuragarriak (8).*
- *Gehiago ikertzea zibersegurtasunean.*
- *Barrera arkitektonikoak*
- *Erakundeek zerbitzuen informazioa ezagunagoa egin herritarrentzat*
- *Funtzionatzen duen kontsumitzailearentzako departamentu bat*
- *Dokumentu publiko guztiak irakurtzeko errazak izan daitezela, informazioa eskuratu ahal izateko*
- *Administrazioaren zerbitzu telematikoak zabaldu eta hobetzea: dokumentuak eskaneatzea etxetik identifikazio elektronikoaren bidez (sinadura)*
- *Gipuzkoa kalitatezko lana sortzeko bidean jarriko du, azpikontrata guztiak utzi eta sistema propio baten alde apustu egiteak.*
- *Gastu partida bat eskaintzea bizilagunek jarritako abisu, kexa eta iradokizunei udalek emandako arreta kontrolatzea, zeren behintzat Eibarko Udalak, badirudi nahierara erantzuten diela batzuei eta beste batzuei ez.*

Lan Publikoa (14)

- *Diputazioko enpresetan eta Foru aldundian lan baldintza duinak izatea (7)*
- *Enplegu gehiago gizarte zerbitzuetan eta prestakuntzan (5)*
- *Praktikak erakunde publikoetan*
- *Plazak gaztelaniaz edo HE1 puntuatuz ateratzea. Hitz egiten ez duten pertsonekin (=autismoa)*

Beste Batzuk (4)



- *Gizarte zerbitzuak eta publikoa dena mantentzea*
- *Lanaldia laburtzeko aukera erraztea, erretiroko pentsiorako proportziorik gabeko murrizketa bat izan gabe. Neurri honek dagoen lana langileen artean ""banatzeko"" balioko luke; horrela, lanpostu berriak sortuz."*
- *Euskara kentzea lanerako*
- *Sistema publikoa "argaltzen" saiatzzea, teknologia berriak aprobetxatuz, funtzionarioak, gainjartzen diren erakunde publikoak murriztu, etab., etab.*


3.2. Herritarren Partaidetza (26)

- *Errausketaren inguruko galdeketa egitea (8)*
- *Herri mugimendua eta parte hartzea bultzatu!(8)*
- *Herri galdeketa birziklapen sistamarako*
- *Kultura eta politika ezagutza zabaltzea.*
- *Herriko elkarte eta herritarren ekimenak bultzatu eta lehenetsi*
- *Kongresu bat sortzea gipuzkoarrak banatzen dituen zenbait arazo eztabaidatzeko eta konpontzen saiatzeko. Esaterako, gaueko aisialdi guneak eta bizilagunek atsedean hartzeko duten eskubidea, txotx denboraldian Hernanin eta beste herri batzuetan. Inbertitzea demokraziaren sakontzean eta konpontzea praktikan jartzeko zailtasuna.*
- *Herritarrak inplikatzeko gai honi buruzko erabaki hartzeetan (pisu eta ostatu turistikoak)*
- *Kanpaina hauek kentzea. Politikariek erakundeak kudeatu behar dituzte eta ez herritarrak.*
- *Inbertitzea gizalegezko hezkuntzan, behin eta berriz eta baliabide guztiekin, askoz futbol gutxiagoren truke.*
- *Pertsonen arteko erlazio sozialak hobetzen eta kontserbatzen laguntzen duten jarduerak. Iritzia eskatzea, alderatzea, komunikazioa*
- *Inbertitzea demokraziaren sakontzean eta hori praktikan jartzea zaila dela nabarmentzea*

3.3. Suteak eta salbamendua (1)

- *Suteen ondoren etxebizitzak egiteko asmoz eragindako suteen aurka egitea (1)*

4. EKONOMIA SUSTAPENeko, LANDA INGURUNEko ETA LURRALDE OREKAKO DEPARTAMENTUA. (871 EKARPEN)



4.1. Garapen sozioekonomikoa (494)

Enplegua (orokorrean) (191)

- *Enplegua sortzera eta sustatzera xedatutako programak –enplegu programak, kalitateko enplegua, enplegu egonkorrak eta soldata duinekoak, enplegua sortzeko formazio ikastaroak, enplegua sortzeko plan estrategikoa egitea (171)*
- *Enplegua lehenestea kanpotarrek (3)*
- *Lana etorkinentzat (2)*
- *Hitzarmen jakin batzuetan gutxieneko soldatak handitzera “behartzea”. Hitzarmen batzuetan, esate baterako, % 100 legezkoa da lanaldi osoan lan egitea 900 euro kobratuz. Uste dut onartezina dela, gutxienekoa igo beharko litzateke (Lanbide arteko Gutxieneko Soldata ez da Aldundiaren eskumenekoa, baina uste dut gehiago presionatu beharko litzatekeela hitzarmenak negoziatzen direnean (2).*



- *Enplegu azokak.*
- *Enplegua sustatzeko orduan obra publikoetan langabezian dagoenari lana eskaini*
- *Lanpostuak sortzea iraupen luzeko enplegatuentzat eta /edo Sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI) kobratzen dutenentzat.*
- *Enplegu erreleboa erraztea.*
- *Pertsonentzat kalitatezko lana bultzatzea eta ikaskuntza arloari laguntza hitzarmen gehiago enpresekin*
- *Politikarien eta enpresariaren artean (botere publikoaren eta ekonomikoaren artean) akordioak lortzea enplegua sustatzeko.*
- *Lan orduak gutxitu eta gehiagori aukera eman*
- *Euskaraz ez dakiten pertsonen lanerako sarrera erraztea.*
- *Lana sustatzea iraupen luzeko langabetuentzat, batik bat emakumeentzat.*
- *Emakume transexualentzako autoenplegurako laguntza (laguntza ez dadila izan sustapenetik).*
- *Tokian tokiko lanpostuak sortu, turismoan zentratu gabe. Bertako aberasgarritasun kulturala sakonduz, pertsonen bizileku aproposak sortu, inolaz ere kanpotarrei zuzenduriko erakuslehoak soilik.*
- *Enpleguaren kalitatea hobetzea, 1.500 €-tik gorako hitzarmenak (langilea izanik inor ez dadin pobrezia mugan egon), jendeak nahiago ez dezan langabezian egon lanean baino, gehiago irabazten duelako.*
- *Baldintza laboralak hobetzea eta formazioa exijitzea istripu laboralak prebenitzeko.*

Gazteak eta enplegua (110)

- *Enplegu kalitatezkoa eta duina gazteentzat sortzeko programak, lana gazteentzat, gazte ekintzaileei laguntzea, kanpora joan behar izan ez dezaten eta talentua atxikitzeko. Gazteek lana izan dezatela ikasketak amaitzean. Gazteen prekarietatea gutxitzea eta Gazteen txertatze laboralaren sustapena (105)*
- *Enpresa sortzaile gazteei laguntza (2)*
- *Gazteen txertatze laboralaren sustapena, ikasketetan diru laguntzen handitzea.*
- *Lan munduan sartzera doazen ikasleak eta ateratzen ari direnak kontaktuan jartzeko sareak sortzea. Lan munduan sartzeko aholkularitza garatu, ikasleek beren ametsak bete ditzaten erraztu, eta egiten duten horretan langile efiziente izatera bultzatu. Sorry public employees, baino Bikaintasuna beharrezkoa da munduan.*
- *Laguntzak gazte ekintzaileentzako baita hauei buruzko informazioaren zabalkuntza: - 25 urteko azpiko ekintzaileen proposamenak gehiago bultzatzea. - Langabetuentzako dinamizazio tailerrak ekintzailetasunean oinarrituak*

Enpresei laguntzak (52)

- *Enpresa txiki eta berriei diru-laguntzak - Enpresen sustapena, ETEetarako laguntzak, oztopoak jarri ez sortzerakoan enpresak. Prestakuntza sustatu. Enpresei lagundu. Enpresak sortzeko laguntzak eta erraztasunak. Izapide (burokrazia) gutxiago, kostuen aurrezkia, lehenengo urtean zerga salbuespenen bat edo era bateko edo besteko diru laguntzak, ETE proiektu berrietarako aholkularitza eta zuzeneko laguntzak, langileak (ETE) birkualifikatzea fabrikazio aurreratuan, enpresei lagundu beraien produktuak kanpoan saltzen. Enpresa sormena sustatzea (39)*
- *Langileen parte hartzea sustatzen jarraitzea Langileen parte hartzea enpresaren antolakuntzan (5)*
- *Pabiloi hutsak eginik enpresa berriak sustatzea.*
- *Enpresa txiki eta ertainekin berrikuntza sustatzea LH zentroen bidez.*
- *Debagoieneko enpresak Miguel Altuna lanbide heziketara jo eta ez IMHra.*
- *Jarduketa publiko-pribatuaren kontzeptualizazioa (kutxa pilotuak).*
- *Enpresen beharrak ezagutarazi lanbide heziketako zentroi.*
- *Sektoreak guztiak izan daitezke! Batez ere, gustatuko litzaidake sustatzea gizonezkoen protagonismo gehiago nabari diren sektoreak, enpresa aholkularitzak bezala (lege, finantza, ekonomia, ingeniariaritza... aholkularitzak, alegia).*

- *Enpresa txikien iruzurra gehiago kontrolatzea. Iruzurrak kontratuetan, nominetan, Geroa-rako ekarpenetan eta abar. Langileen soldata handitzera behartzea. Aurten Eusko Jaurlaritzak enpresa txikien kontratuak berrikusi ditu eta, a ze kasualitatea!/: bat batean 50 €-tan igo didate soldata, albistea atera eta gero. Langileen baldintza eta soldata duinen alde.*
- *Enpresei laguntza gehiago ematea baina baldintza estuagoak jarrita: ziurtatzea emakumeek lanpostu garrantzitsuak eta baldintza berdinak lortzen dituztela. -Praktiken aldiko kontratuetarako laguntzen zati bat bekadunarentzat berarentzat izatea.*

Ekonomia sustapena (44)

- *Garapen ekonomikoa – ekonomiaren garapena; ekonomia arloan hobetzea, krisialditik ateratzeko; Ekonomia berraktibatzeke Plana; Ezegonkortasun ekonomikorik ez; erdi mailako klasea ez murriztea eta autonomoak izatea; ekonomia sustapena gehiago horrentzako (42).*
- *Ekonomia asoziatiboa.*
- *Destinar recursos al control de los reclutamientos de personal laboral en instituciones públicas, cuando no son por convocatoria abierta, tratar de reducir las convocatorias cerradas, designaciones "" a dedo"". Evitar duplicidades con otras instituciones públicas, Ir igualando las condiciones laborales de los funcionarios con los de la empresa privada, etc, con el fin de que no sea necesario endeudarse en un porcentaje tan alto del PIB para crecer de forma ordenada y sostenida*
- *aumentar la transparencia, el diálogo con los ciudadanos, y pequeños ""referendums"" sobre diferentes temas que atañen a los ciudadanos@s.*
- *"Partidu politikoei herriaren ongi izatean lan egin dezaten eta ez beraien interesengan.*
- *Partiduek herria ez konfrontatzea gorrotoz eta herria banatzen ez saiatzea bozkak lortzeko."*
- *Politika hobetzea. Partidu politikoen artean erronkarik ez egotea, elkarriketa sustatzea eta lankidetzaren bidez arlo guztietan parte hartzea.*



29. Enpresak (22)

- *Facilidad creación empresas (2)*
- *Apoyo para el desarrollo de las pymes*
- *Fortalecer y crear empresas*
- *Enpresa txiki eta ertainak sustatzea. Kooperatibismoa zabaltzea.*
- *Enpresa laguntzea. Enpresa Arcelor eta Gallardo berriz irekitzea.*
- *Zergak igo behar zaizkie enpresa handiei.*
- *Debarrenean gizarte enpresen sorrera sustatzea.*
- *Gizarteratzeko enpresen sorrerak sustatzea.*
- *Ekonomia berdindu bat, enpresa txikiei laguntza.*
- *Recuperar el espíritu emprendedor vasco.*
- *Mismas ayudas y el mismo apoyo para todas las cooperativas*
- *Asociación de PYMES complementarias para competir en el mercado con grandes empresas.*
- *Ayuda a empresas locales a generar empleo y atraer nuevas empresas, parque tecnológico*
- *Ayudar a las pequeñas empresas del sector del metal, para que sigan siendo el sostén económico del pueblo. Vergonzoso que siempre se queden las ayudas las grandes empresas.*
- *Crear un tejido de CEIS comarcalizado, capaces de promover una intensa INTERCOOPERACION entre PYMES, CCTT, UNIVERSIDAD, CONSULTORIAS, CAMARA COMERCIO, ETC...*
- *Enpresen sorrerarako laguntza gehiago (gizarte segurantzak). Dirulaguntzak*
- *Crear empleo para ello hay que potenciar el espíritu emprendedor, apoyando a los emprendedores, reduciendo su carga tributaria y simplificando los trámites para la creación de nuevas empresas*
- *Tiene que crearse un tejido empresarial con productos y servicios de alto valor añadido , para ello es fundamnetal que se aborde con mucho entusiasmo una política educativa que facilite la formación de cuadros superiores y medios muy bien preparados*
- *Atraer empresas de alta tecnología y no polucionantes (ej: farmaceuticas)*
- *Promoción de las empresas para que crezca la economía y se generen puestos de trabajo fijo y de calidad.*
- *Desllocalizatzea enpresenak*



30. Lurralde Oreka (21)

- *Lurralde oreka (5)*
- *Herrien parekontasuna hiriburuekiko (2).*
- *centrarse en pueblos*
- *Lurraldea batu.*
- *Que acceder a otros pueblos sea más sencillo y barato*
- *Mejora política territorial. Herri txikietan inbertsio gehiago egin ez hainbeste hiriburuan. Pentsatu herri txikietaz ere. Gipuzkoa dena da.*
- *Equilibrio territorial en servicios.*
- *Lurraldearen oreka mantentzea arlo guztietan: azpiegiturretan, biztanleriaren dentsitatean, landagune eta hiriguneen artean, enpresa garapenean...*
- *Lograr que Gipuzkoa sea modelo y referente para otros pueblos*
- *Probintzia guztia herri bat haundia izango balitz bezala. Herri txikiak kontatzeko herri haundiak bezala*
- *Mantener la igualdad entre los pueblos e invertir en ellos de una forma responsable y justa.*
- *Herri txikiak kontuan hartu. Lan guztiak hiri handietan egiten dira eta ez dago ezer herri txikietan.*
- *Probintzia ikuspegiaz haratago Euskal Herri ikuspegia sustatzea. Gipuzkoa gutxiago, E. Herria gehiago*
- *"Lurralde oreka" benetan gauzatzeko, Donostialdean gehiago inbertitu gabe, Gipuzkoako beste herrietan inbertitzea...*
- *Kohesioa, inbertsioak lurralde guztira zabaltzea. Deban adibidez geroz eta urrutiago sentitzen gara. garraiobide falta nabarmena, kultura azpieguturak falta ditugu.*
- *Ez gastatu lan handietan baizik eta herri txikietan*



31. Independentzia eta Autonomia (15)

- *Independencia (5)*
- *Gure etorkizuna gure esku jartzea (3)*
- *Españiagandik banantzea (2)*
- *Euskal konstituzioaren borradoreak idazteari ekin.*
- *Madriletik separatzea*
- *Burujabetza aldeko apostua*
- *Lograr mayores cuotas de autonomía política.*
- *Erabakitzeko eskubidearen aldeko bidean urratsak ematea.*



32. Bidegorriak (15)

- *Mas bidegorris (6)*
- *Deba-Mutriku bidegorria. (2)*
- *Bidegorris (sobre todo en pueblos pequeños)*
- *Bidegorria-debabarrenean.*
- *Bidegorria Elgoibar-Deba hondartzara joateko.*
- *-Bide gorriak sustatzea (hondartzara joateko eta abar...)*
- *Bidegorriak egin eta mendiko rutak ondo markatu ta garbi izan bidea.*
- *Carril bici/ bidegorri en las ciudades: por ejemplo Irun: no tiene carril bici en todo el casco urbano. Entre hondarribi-Irun: tampoco (uno pequeño)*
- *Herriak bata bestearekin lotuko dituen benetako bidegorri sarea. Autoak alde batera uztea bultzatuko duten azpiegiturak egitea ibilbide motzetan*



33. Langile autonomoak (10)

- *Mas ayudas a los autónomos (4)*
- *Ayudas para pequeñas empresas y sobre todo autonomos*
- *Equiparar condiciones laborales entre autónomos y asalariados*
- *Igualdad entre trabajadores y autonomos*
- *Mejora condiciones para los autónomos*
- *Generar empleo. Con mas ayudas para autonomos y autonomos societarios*
- *Un sistema que facilite la estabilidad de los autónomos, y que el sistema nos garantice la estabilidad y futura economía*



34. Energia (9)

- *Energia (2)*
- *Energia mas barata*
- *Energia sostenibile*
- *Energia berriztagarriak %30era iristea, ingurumena zaintzeko*
- *Energia berriztagarriak, gehiago egin beharko genukeela. Turismoa: barruko "hiriak" landu.*
- *Lurralde jasangarria izatea: horretarako energiaren kontsumoa gutxitu (industria eta garraioan).*
- *Crear estructuras que faciliten el poder vivir mas en cercanía con el entorno, producir energías sin contratarlas, concienciar en estas cosas a la población... buscar el modo de vivir mas en cercanía con la tierra y los recursos que disponemos.*
- *Dudarik ez dago gipuzkoarron eta denon etorkizuneko ardua nagusia errekurtsio energetiko eta hondakinen gestio eta erabilpen etikoa direla (empresa handiekiko menpekotasuna murriztuz)*



35. Kirola (8)

- *Kirola (2)*
- *Nuevo Anoeta (2)*
- *kirol agenda anitza sortu*
- *Kirol guztietan garrantzi handia ematea.*
- *Destinar mas dinero a deportes que no sean el fútbol (destinar mas dinero, y esfuerzos en general)*
- *Fomentar el deporte femenino (pelota)*



36. Merkataritza eta ostalaritza (8)

- *Comercio: plan de apoyo a emprendedores ¿por que no se arropa a cambios generacionales?*
- *Mejora de la calidad de la hostelería, terrazas y bares de calidad, con cursos de idiomas para el sector y servicio de atención al cliente.*
- *-Adecuación de los horarios de los comercios de ropa y mejoras en las calles principales de la localidad. Obligar a los dueños a alquilar dichos locales del centro para mejorar su imagen.*
- *Que el desempleo llegue al 0%. Desempleo local/comercio y el consumo local*
- *La economía en la pequeña empresa y pequeño comercio en los barrios y pueblos de Gipuzkoa*
- *Ayudar a los pequeños comercios*
- *Fomentar e impulsar comercio local*
- *Merkataritzan askok egiten duten promozioa "BEZik gabeko eguna" esanez ekiditu.*



37. Espazio publikoa (4)

- *Regeneración de espacios abandonados*
- *Mejoras urbanísticas*
- *GESTION PUBLICA DEL ESPACIO PUBLICO*
- *Más recursos de ocio y tiempo libre para los y las jóvenes (parques cubiertos, polideportivos)*



38. Beste batzuk (59)

- *Legalizar la marihuana (3)*
- *crear una parada de tren (Renfe) entre Donostia y Loiola (2)*
- *Sacar todos los presos políticos de las prisiones (2)*
- *Mutriku es el gran olvidado de toda Gipuzkoa (2).*
- *Que siga igual (2)*
- *Animaliak ez erabili festetan*
- *Pensar más en la ciudadanía y menos a las empresas*
- *Biztanlegoa zaindu erronka erraldoia bigarren mailara pasa*
- *Casa de cultura en Hernani*
- *Conseguir que todo vaya bien y siga como hasta ahora*
- *Tabakalera, mejoras...*
- *Que siga funcionando la limpieza de la ciudad*
- *El paseo del Urumea de SS*
- *Polizien biktimak nola ez dezute negoziatu Madrilen. Preso politiko gaixoak askatzeko inplikazioa*
- *Zoriontsuak izatea*
- *Lezoko kaia herriarentzat*
- *Globalizazioan ez galdu gure nortasuna.*
- *Droga desagertzea*
- *Mas presencia en el entorno geo-politico.*
- *Madrileko trasteak kendu.*
- *Kutsadura akustikoa: leku oso zaratatsuetan bizi gera: osasun arazoak sortzen ditu*
- *Acabar con el capitalismo*
- *Que se vayan todos los gobernantes*
- *Las necesidades de las personas estén cubiertas*
- *Igual trato que a los vizcaínos.*
- *Muerte digna.*
- *Hacer las cosas bien a la primera.*
- *Seguimiento de las acciones.*
- *Mejora continua*
- *No tener esto lleno de yihadistas, traficantes que viven del R.G.I.*
- *Gipuzkoaren nazioarteko proiektzioa*
- *Todo es muy importante*
- *Más trabajo y que los diputados y ediles de los ayuntamientos se bajen el sueldo*
- *Lan munduko aldaketak babestu.*
- *Que los políticos no sean profesionales.*
- *Aprobación derecho a eutanasia. No alargar la vida de ancianos sin calidad*
- *Trintxerpe proiektu aurre egin eta ondo egin eta San Pedroko portu baita*
- *No perder la identidad como provincia*
- *Mundua gehiago ezautzera*
- *Pensar en la nueva generación que viene, pensar en nuestros hijos y su futuro*
- *Hacer las cosas con cabeza. Pensar a largo plazo.*
- *Me gustaría que el caso de los niños robados se le diera mas importancia. Se investigara en ello*
- *Ekintzailetasunaren sustapena*
- *Que Gipuzkoa sea un territorio referente para los demás*
- *Integración en Europa*
- *Mejora de la carretera Mutriku-Deba*
- *La movilización por lo demás todo está yendo para mejor*
- *- MENDARON NOIZKO BIGARREN ZUBIA?*
- *MENDARON KIROLGUNEA ESTALI BAT EGITEKO DIRU-LAGUNTZA.*
- *Debabarrena Gipuzkoako batazbestekoaren azpitik dago bizitza mailari dagokionez."*



- *"Arrasate leku aproposa da ondorengoa jartzeko:*
- *Batzuentzat, zuek! onena .*
- *Más servicio de comercio abierto comarca Alto Deba*



2018ko AURREKONTU IREKIAK

ENTITATEEN PROPOSAMENAK

Emaitzak

Elkarrizketa zuzena gizarte zibilarekin





TXOSTEN HONETAN, 2017KO MAIATZETIK EKAINERA BITARTEAN GIZARTE ZIBILAREKIN EGINIKO TOPAKETEN ANALISIA ETA BERTATIK ATERATAKO ONDORIOAK JASOTZEN DIRA. TOPAKETAK AURREKONTU IREKIEN PARTAIDETZA EKIMENAREN ESPARRUAN EGIN DIRA, ETA ELKARRIZKETA ZUZENA ETA ENTZUTE AKTIBOA BULTZATZEN DITUZTE, FORU ERAKUNDEAREN GOBERNUAREN ESTRATEGIAREKIN BAT ETORRIZ.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO 2015-2019 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOAK GOBERNU IREKI ETA PARTE-HARTZAILEAREN EREDUA PROPOSATZEN DU. PERTSONAK HARTUKO DITU OINARRI, BAITA HAUEK ERE:

- LIDERGO ERALDATZAILEA ETA GAINERAKO ERAKUNDEEKIN NAHIZ GIZARTE ANTOLATUAREKIN PARTEKATUTA.
- PARTAIDETZA PUBLIKOA ETA PRIBATUA PROIEKTU ESTRATEGIKOEI BULTZADA EMATEKO.
- HERRITARREKIN ETA LURRALDEKO GAINERAKO ERAGILE EKONOMIKO ETA SOZIALEKIN UNE ORO ELKARRERAGINA IZATEA ETA ERABAKIAK HARTZEA.
- FORU ALDUNDIKO TALDE POLITIKOEN ETA TEKNIKOEK PARTAIDETZA AKTIBOA ETA PROTAGONISTA IZATEA GOBERNUKO EKINTZEN LEHENTASUNEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO, IRMOTASUNA, ERANTZUKIZUNA ETA GARDENTASUNA IRIZPIDE HARTUTA.

GIZARTE ORDEZKARIEN ETA HERRITARREN PARTAIDETZA KUDEAKETA PUBLIKOAN SARTZEAK LAGUNDU EGITEN DU KONFIANTZA HORI SORTZEN; IZAN ERE, GOBERNUAK SENDOTZEN DIRA, POLITIKA PUBLIKOAK LEGITIMATZEN DIRA, GIZARTE ANIZTASUNA TXERTATZEN DA, AGENDA PUBLIKOAN GIZARTE INTERESAK SARTZEA BULTZATZEN DA, HERRITARRAK BIZITZA PUBLIKOKO ANTOLAMENDU PROZESUETAN MURGILTZEN DITU ETA GIZARTE ZIBILAREN EGINKIZUNA SENDOTZEN DA.



0. AURKIBIDEA

1. ZERGATIK EGIN TOPAKETAK? **4**
2. NOLA EGIN DIRA TOPAKETAK? **6**
3. ZER ERAGILEK HARTU DUTE PARTE? **7**
4. EMAITZAK: GIZARTE ZIBILAREN ESKAERAK **8**
5. ONDORIOAK **23**
6. EKARPENEN ZERRENDA **24**

1. ZERGATIK EGIN TOPAKETAK?

Zalantzarik gabe, Aurrekontu Irekiak 2018 partaidetza prozesuaren berrikuntza esanguratsuenetako bat Gipuzkoako gizarte zibilarekin eginiko topaketak izan dira. Partaidetza ekimen hau pasa den ekitaldian martxan jarritakoaren beste edizio bat da. Hala, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko foru diputatua Imanol Lasak eta Herritarren Partaidetzarako zuzendari orokorra Joseba Muxikak 28 topaketa egin dituzte gure lurralde historikoan finkatutako hainbat elkarte, erakunde, kolektibo, mugimendu eta talde sozialetako 500 pertsonarekin baino gehiagorekin. Jauzi kualitatibo handia eman da, eta balioa ematen zaio gizarte ordezkarien eta politikarien arteko elkarrizketa zuzenari, betiere ezagutza partekatuaren testuinguruan.

Gizartean dagoen partaidetzak, asoziazionismoak eta konfiantzak zuzenean eragiten dute kapital sozialaren mailetan. Eta aktibo horrekin batera, giza kapitalaren, kapital naturalaren, kapital fisikoaren eta kapital finantzarioaren ondorio dira herri baten garapen ekonomikoaren eta sozialaren mailak (Knack eta Keefer, 1997)¹. Hori dela eta, foru erakundeetatik Gipuzkoan partaidetza bultzatu, hedatu eta errotzeko, edo gobernu ireki eta parte-hartzailearen eredu berria lortzeko lan egiten denean, funtsezkoa eta ezinbestekoa da gizarteko ordezkariak aktiboa Gipuzkoako eguneroko bizimoduan sartzea. Horrela bakarrik lortuko dugu eraginkortasunez eta arrakasta izateko bermeaz aurrerapausoak ematea, gure lurraldean herritarren partaidetza indartzeko, zabaltzeko, errazteko eta hedatzeko estrategiaren bidez.

Aurrekontu Irekiak 2018 partaidetza ekimenaren barruan (maiatzean eta ekainean egon da aktibo), herritarrek modu partikularrean emandako iritziak, ekarpenak, gomendioak, ideiak eta iradokizunak jaso dira. Partaidetza prozesu horrek apustu kementsuagoa egin du honako hauek baliatuz: *Herriz Herri* kanpaina, aurrez aurrekoa (udalerrri handi, ertain eta txikietan 40 egunez jarri dituzte partaidetza aktiborako karpa ibiltariak), web galdetegi eskuragarriagoa eta 310.000 galdetegi etxez etxe banatzea. Hala, Gipuzkoa osatzen duen gizarte egiturarekin kontrastatzean amaituko da, gizarte ordezkariarekin eginiko topaketen bidez; hots, *Topaketak* ekimenari esker.

Banako nahiz taldeko ekarpenak jasotzen dituen partaidetza prozesua diseinatu da aurrez aurreko kanalen eta kanal birtualen bidez. Horiei esker, Gipuzkoako Foru Aldundiak zehatz-

¹ Knack, S. y Keefer, P. (1997). "Does social capital have an economic pay-off? A cross-country investigation", *Quarterly Journal of Economics* 112 (4): 1251-1288.



mehatz eta hurbiletik ezagutu ahal izan ditu gure gizarte osoak dituen erronkak, arazoak, zalantzak, kezkak, ekarpenak eta ideiak. Topaketen kasuan, gizarteko ordezkariak zuzenduta, elkarrikeria zuzenaren metodologia erabili da. Bertan, Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioko diputatua bera eta Herritarren Partaidetzako zuzendaria izan dira kontu emakidaren eta entzute aktiboaren formatuan egituraturako topaketetan.



2. NOLA EGIN DIRA TOPAKETAK?

Topaketen diseinu metodologikoak entzute aktiboa eta gizarte ordezkarien (hainbat motatako gizarte erakundeak) nahiz foruko ordezkari politikoen (zehazki, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko diputatu Imanol Lasa eta Herritarren Partaidetzarako zuzendari Joseba Muxika) arteko elkarrizketa zuzena izan ditu oinarri, gidoi honi jarraikiz:

1. Aurkezpena Imanol Lasa diputatuaren eta/edo Joseba Muxikaren ekimenez:
 - Aurrekontu Irekiak 2018 partaidetza ekimena
 - Foru Aldundiaren ardatz estrategikoak bateratzea
 - Martxan jarritako zenbait proiektu eta ekimen aurkeztea
 - Etorkizuna Eraikiz proiektuari balioa ematea
2. Proposamen irekiak eta kontrasteak jasotzea ordezkari politikoeekin.
3. Topaketaren amaiera, eta aurrekontu irekiak 2018 partaidetza ekimenean parte hartzeko gonbidapena egitea (galdetegiak betez).

Topaketek batez beste 2 ordu iraun dute, eta gutxi gorabehera 20 pertsona bertaratu dira. Partaidetza saioetan ateratako informazio guztia aktan jaso da. Gainera, Topaketak udal ekipamenduetan eta egokitutako eremu publikoetan egin dira, hainbat eragileren artean informazioa trukatu eta ekarpenak egin ahal izateko.

Informazioa elkar trukatzeko, intereseko hainbat gizarte kolektiborekin elkarri informazioa emateko diseinatutako metodologia baliatu da, giro permisiboan eta ez zuzentzailean. Horri esker, eztabaida erlaxatua, eroso eta sarritan asebetetzekoa egin ahal izan da parte-hartzaileen artean; izan ere, guztien aurrean azaldu dituzte haien ideiak eta iruzkinak. Gainera, taldeko kideek elkarri eragiten diote, elkarrizketa irekian sortutako ideia eta iruzkinei erantzuten diete eta.

Topaketak Foru erakundeko komunikazio kanalen eta sare sozialen bidez iragarri eta gizarteratu dira. Horrez gain, prentsan eta ikus-entzunezko komunikabideetan ere iragarri dituzte zenbait ekimen, bai gizartean piztu duten interesagatik, bai entzute aktiboaren ariketa horren aldeko apustua egiteak dakarren balioagatik.



3. ZER ERAGILEK HARTU DUTE PARTE?

Guztira, **gizarte zibileko 527 pertsonak** hartu dute parte **antolatutako 28 topaketetan**. Nabarmentzekoa da askotariko gizarte ordezkariekin batera, honako hauek ere izan direla partaide: ikasleen elkarteak, hezitzaileak eta irakasleak, unibertsitateko ikasleak, erakundeak, kirol elkarteak, haur, emakume eta erretiratuen elkarteak, gurasoen kolektiboak, kultura eragileak, merkatarien elkarteak, industria elkarteak, ekintzaileak, gizarte eragileak edo hirugarren sektorekoak, besteak beste. Jarraian, maiatzean eta ekainean egindako topaketetan jarraitu den egutegia zehaztuko dugu:

<i>Herria</i>	<i>Data</i>	<i>Mota</i>	<i>Bertaratuak</i>
<i>Andoain</i>	2017/05/15	Hirugarren sektorea – Gizarte kolektiboak	14
<i>Antzuola</i>	2017/06/01	Herritarrak	21
<i>Aretxabaleta</i>	2017/05/26	Ikastetxeak eta prestakuntza zentroak	21
<i>Arrasate</i>	2017/05/26	Mondragon unibertsitatea	16
<i>Astigarraga</i>	2017/06/08	Lehen sektorea	15
<i>Azkoitia</i>	2017/05/18	Ikastetxeak eta prestakuntza zentroak	33
<i>Azpeitia</i>	2017/05/22	Merkataritza	12
<i>Deba</i>	2017/05/24	Elkarte kulturalak	21
<i>Donostia</i>	2017/05/05	Deustuko unibertsitatea	43
<i>Donostia</i>	2017/05/03	Ikastetxeak	56
<i>Eibar</i>	2017/05/25	Erretiratuen elkartea	41
<i>Elgoibar</i>	2017/05/26	Ikastetxeak	15
<i>Getaria</i>	2017/05/17	Erretiratuen elkartea	23
<i>Hernani</i>	2017/05/08	Ikastetxeak eta prestakuntza zentroak	11
<i>Idiazabal</i>	2017/06/16	Lehen sektorea	10
<i>Irun</i>	2017/05/11	Hirugarren sektorea – Gizarte kolektiboak	15
<i>Legazpi</i>	2017/06/15	Erretiratuen elkartea	12
<i>Lezo</i>	2017/06/26	Herritarrak	10
<i>Oiartzun</i>	2017/05/09	Kirol eta kultura elkarteak	8
<i>Ordizia</i>	2017/06/09	Garapen ekonomikoa	13
<i>Orio</i>	2017/05/16	Ikastetxeak – Gurasoen elkartea	12
<i>Pasaia</i>	2017/05/10	Ikastetxeak	21
<i>Tolosa</i>	2017/06/30	Garapen ekonomikoa	4
<i>Tolosa</i>	2017/06/22	Hirugarren sektorea	12
<i>Urretxu</i>	2017/06/08	Garapen ekonomikoa	9
<i>Zarautz</i>	2017/05/29	Ikastetxeak eta prestakuntza zentroak	25
<i>Zumaia</i>	2017/05/23	Erretiratuen elkartea	23
<i>Zumarraga</i>	2017/06/15	Erretiratuen elkartea	11
GUZTIRA			527



4. EMAITZAK: GIZARTE ZIBILAREN ESKAERAK

Gizarte zibilarekin eginiko topaketen fruitu gisa, **282 ekarpen, galdera, ideia, iradokizun eta gomendio** jaso dituzte askotariko entitateek. Topaketetan **500 pertsonak baino gehiagok** hartu dute parte, sektore eta azpisektore ezberdinak eta heterogeneoak tartean. Egindako ekarpenak alderatzeko eta zalantzak argitzeko aukera izan dute topaketen eta elkarrizketa zuzenen bidez.

Aurrekontu Irekien partaidetza ekimenean bezala, gizarte zibilak eginiko ekarpenak eta zalantzak Departamentu bakoitzak kodetu eta kategoriatan sailkatu zituen. Kasu honetan, **Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako** Departamentuak jaso zituen ekarpen gehien, bereziki industriari, lehen sektoreari eta enpresei dagokienez. Bigarrenik, **Gizarte Politiken** Departamentua izan da ekarpen gehien jaso dituen administrazio egitura, zehazki, askotariko gizarte kolektiboek, egoitza zentroeik eta gizarte zerbitzuek dagokienez, besteak beste.

Bide Azpiegiturak; Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketa, eta Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirol Departamentuek antzeko ekarpen kopurua jaso dute. Horietan, gizarte zibilak bere kezkek eta hobetzeko proposamenak jakinarazi zituen: errepideen sarea, puntu beltzak, bidesariak, bizikletentzako bideak, garraio publikoa, Mugi txartela, Pasaialdearen birsorkuntza, kulturaren sustapena, kirola eta turismoa.


Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak ekarpen gutxiago jaso zituen, eta horien erdiek administrazio izapideak edo burokrasia arintzea, arrazionalizatzea, egokitzea eta hobetzea eskatzen da. Era berean, hainbat ekarpenek ekintza publikoak eta pribatuak hartzen zituzten barne, edo, bestela, partaidetza ekimenean inplementazioak hobetzea, besteak beste.

Ogasun eta Finantza Departamentuak, ekarpen gutxiagorekin, eragile eta sektore ezberdinei aplikatzen zaien zerga sistemari, iruzurraren aurkako borrokara bideratutako hainbat proposamen, iradokizun eta zalantza jaso zituen. **Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako** Departamentua ere topaketetan aurkeztutako proposamenekin bat etorri kategorizatu da. Hala, hondakinen, energiaren, hondartzen, birziklatzearen edo ibaien garbiketaren kudeaketari buruzko hainbat galdera egin dituzte.

Azkenik, **diputatu nagusiaren kabineteak** berriazko zenbait ekarpen jaso ditu, bereziki euskararen sustapenarekin, elkarbizitzarekin edo Etorbizuna Eraikiz programarekin lotuta.


Gainera, **“beste batzuk” kategorian**, Foru Aldundiaren eskuduntzakoak izan gabe, gizarte entitateekin eta erakundeekin eginiko topaketetan adierazi edo azaldu ziren ekarpenak jaso dira.

Grafiko honetan, egindako kategorizazioa eta kodetzea laburbilduko dugu, eta ekarpen gehien zer departamentuk jaso dituen ikusaraziko dugu.



Jarraian, departamentuz departamentu eginiko analisi laburra egin dugu. Bertan, Topaketetan egin diren galdera nagusiak berrikusiko ditugu. Kasu honetan, ez dira jaso ekarpenak edo galderak egin zituzten eragileen datu identifikagarriak, txosten honetan inolako kolektibori pribilegiarik ez emateko. Hala ere, azken kapituluaren ezinezkoa da egindako ekarpenen zerrenda kontsultatzea. Bertan, topaketaren jatorria ageri da, baita aktan jasotako eta 2017ko maiatzean eta ekainean eginiko 28 topaketetan eginiko ekarpenaren formulazio zehatza ere.


1. DIPUTATU NAGUSIAREN KABINETEA (5 ekarpen)



Diputatu nagusiari zuzendutako ekarpenetan, Euskararen sustapenaren esparruari buruzko ekarpenak izan ziren nagusi. Horietan, euskara sustatzeko laguntzak, ikasteko laguntzak eta HABEren eredua aztertze beharra azpimarratu zuten.

Gainera, diputatu nagusiaren kabinetean sartutako ekarpenak hezkuntza esparrutik Etorkizuna Eraikiz programan parte hartzeari edo gizarte estratu batzuetan elkarbizitzari eta integrazioari bultzada emateari buruzkoak izan ziren.

2. KULTURA, TURISMOA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA (30 ekarpen)




Askotariko kolektiboek eta entitateek Departamentu honi helarazitako ekarpenen bidez, lehen tasun gisa **Gipuzkoako kultura sustapeneko** arloarekin loturiko hainbat galdera egin zituzten. Esate baterako, jasotako ekarpen askotan, beharizan hauek aipatu ziren: Kultura Zuzendaritzarekin biltzea, diru-laguntzen hartzaileak izatea, udalekuak antolatzen dituzten eskola aktiboen figuran sartutako kooperatibei laguntzea edo beste kultura eragile batzuekin harremanetan jartzea. Era berean, atal honetan kodetutako ekarpenek agerian uzten dute topaketak baliatu zituztela zalantzak argitzeko eta Aldundiarekin partaidetzarako aukerak eta hurbiltzeko aukerak aztertzeko.

Bigarrenik, **kirol esparrua** jorratzeko hainbat ekarpen egin zituzten, eta zenbait udalerritan obrak egitea eta kirol azpiegiturak jartzea eskatu zuten. Horrez gain, aztertutako ekarpen askotan, beharizan hauek jarri zituzten mahai gainean: berariaz kirol batzuen aldeko apustua egitea, oinarritzko Kirolean sartuta zeuden boluntarioen ziurtagiriak edo konpentsazioak, edo Foru Erakundeak diru-laguntza batzuk aztertzea, besteak beste.

Hirugarrenik, balioa eman zitzaion Gipuzkoan, hainbat ikuspuntutatik, **turismoa** proiektatzeko beharriari, hala nola barneko turismoaren bultzada ematea, adineko pertsonentzako programak, turismoa garatzeko politikak eta interesa duten eragile ekonomikoen sustapena egingarria egiteko diru-laguntzen bilaketa. Ekarpentako bat Donostian dagoen turismo masifikazioaren ingurukoa da. Azkenik, Donostiako liburutegien ordutegia zabaltzeari buruzko ekarpen bat jaso zen.


3. GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUA (14 ekarpen)



Foru Departamentu honen berriazko eskuduntzetan jasotako eta ondoren sailkatutako ekarpenen zati handi bat **administrazio izapideen kudeaketa hobetzer**a eta **burokrazia arintzer**a bideratuta egon ziren. Zehazki, ekarpenetan diru-laguntzak eta administrazio prozeduretarako izapideak arintzeko, administrazioa desburokratizatzeko edo administrazio elektronikora aldatzeko beharra aipatzen dira, besteak beste.

Beste alde batetik, honako hauek kodetu egin dira: ekintza publiko eta pribatuak sustatzeko eta bultzatzeko behararekin loturiko ekarpenak, **herritarren partaidetza prozesuetarako zenbait hobekuntza**, Elkarrekin programarako sarbidea, eta mendietako larraldietan esku hartzeko unitateekin loturiko galdera bat.

4. EKONOMIA SUSTAPENeko, LANDA INGURUNeko ETA LURRALDE OREKAKO DEPARTAMENTUA (77 ekarpen)



Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuak jaso zuen eskari gehien Topaketetan parte hartu zuten hainbat eragileren artean. Zehazki, ekarpen asko **industria berrikuntzaren esparrura** bideratuta egon ziren. Horietan, 4.0 Industriari profesionaleri, ekintzaileei eta enpresariei ematen dizkien aukerak aintzat hartu dituzte. Hala, agerian geratu zen Topaketetan parte hartu zutenen ustez, industriaren sektoreak aukera ematen duela aurrerapenaren testuinguruan garapen sozioekonomikoa finkatzeko. Beraz, Aldundiari laguntza eskatzen diote.

Bigarrenik, **lehen sektorea bultzatzera eta sendotzera** bideratutako ekarpenak azpimarratu behar dira. Hainbat kolektibok laguntzak eskatu zituzten lehen sektoreko jarduerari eusteko, tokiko produktuak bultzatzeko, lehen sektorea gehiago babesteko eta aintzat hartzeko, edo lehen sektorea lurraldearen garapen jasangarria, soziala eta ekonomikoa lortzeko sektore estrategiko nagusietako baten moduan sartzeari proposatzeko, besteak beste.

Hirugarrenik, hainbat eragilek ikusi zuten Gipuzkoako enpresen sektoreari laguntzea ezinbestekoa dela, baita enpresak indartzeko eta merkatu ezin lehiakorragoaren testuinguruan babesa emateko ere. Zehazki, eskaera hauek egin zituzten: enpresa txiki eta ertainei kapitala ematea, enpresen sektorean elkarreragina eta lan partekatua hobetzea, laguntza teknikoa eta aholkularitza ematea, eta proiektu estrategikoak jasotzeko erraztasunak ematea, besteak beste.

Laugarrenik, jasotako ekarpenek **enplegurako politika aktiboak** sendotzea eta garatzea izan zuten helburu. Kasu honetan, galderak alderdi hauek izan zituzten ardatz: lehen sektorerako



profil profesionalak lortzeko beharra, eskatzen diren kontratazio irizpideei buruzko galderak, profil teknikoen falta edo lan munduan adineko pertsonak sartzeara.


Bosgarrenik, ekarpen asko jaso ziren, besteak beste, **emakumeak lanean sartzearen eta bultzatzearen** kategorian. Eskaera hauek ere egin zituzten: emakumeak industrian sartzeara errazten duten politikak aplikatzea, emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzen duten enpresen kontratazioan irizpide berriak sartzeara, eta emakumeak prestakuntza teknikoetan sartzeara bultzatzea eta sustatzea, besteak beste.

Seigarrenik, **lurralde orekaren** esparruan ekarpenen kopuru esanguratsua jaso zen. Zehazki, kolektiboek behin eta berriz aipatu zuten Interneterako sarbidea, zuntza eta 5G zerbitzua landa inguruetara zabaltzeko beharra. Beste alde batetik, prestakuntza ere aldaera garrantzitsutzat jo zuten. Hala, ekintzaitzaren eta hezkuntza nahiz lanbide sektoreen arteko batasunaren aldeko apustua egin da.

Zazpigarren lekuan, **lurraldearen sustapen ekonomikoan aurrerapausoak** emateko beharra adierazi zuten, bereziki, proiektu zehatz batzuk martxan jartzeko finantzaketa eta tresnak lortzeko laguntzei dagokienez. Sektore ekonomikoen berrikuntza eta modernizazioa ere aipatu zuten topaketetan, baita eskualde espezifiko batzuetara lekualdatzeko beharra ere.

Azkenik, nork bere enpresaren kudeaketan langileen partaidetza eta erabakiak hartzeko gaitasuna eskatzen zuten zenbait neurri jaso ziren.

5. MUGIKORTASUNEN ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA (35 ekarpen)




Departamentu honetara bideratutako ekarpenak eta galderak, berariaz, **zenbait autobus linea eta garraio publikoaren maiztasunak aztertzeko** eskatzera egon ziren bideratuta. Kasu honetan, oro har, autobusen maiztasuna handitzearen aldeko apustua egiten da, eta, zehazki, loturak hobetzeko, gaueko eta asteburuetakako zerbitzu hobeak sartzeko eta udalerrri jakin batzuetan linea berriak (adibidez, Mutriku-Mendaro) zehaztea edo Gipuzkoako eta Bizkaiko herri batzuen artean loturak ezartzea ere, besteak beste.

Bigarrenik, hainbat eragilek **MUGI garraio txartelarekin** loturiko hobekuntzak azpimarratu zituzten. Hala, ikasleentzat deskontu handiagoak edo txartelaren kostua merkatzea eskatu dute. Era berean, **hiru lurraldeetan tarifak bateratzea** edo MUGI txartela beste garraio agente batzuekin (adibidez, Renferekin) bateratzea egokia ote zen aztertu zuten. Halaber, bizikleten bideen inguruko hainbat ekarpen jaso zituzten. Horietan, proposamen zehatzak jasotzen dira zenbait herritarako.

Pasaialdea birsortzea ere beharizan gisa aipatu zuten, zehazki, portuko jarduerari eta Pasaia Birsortzeko Planari dagokienez. Azkenik, zenbait herritan autobus geltokiak instalatzea eskatu zuten, eta seinale estrategikoak jartzea ere proposatu zuten.

6. OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA (11 ekarpen)




Ogasun eta Finantza Departamentuak hainbat proposamen jaso zituen zerga sistemarekin lotuta. Batez ere horiek aztertzea eskatu zuten. Zehazki, topaketetan parte hartu zuten zenbait eragilek **zergen kargak jaitea edo presio fiskala egokitzea** eskatu zuten beren negozioen bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko. Era berean, bidez batez, sozietateen gaineko zergarekin, Aldundian diru-sarrerak sartzearekin eta kooperatibetarako politika fiskalarekin loturiko zenbait zalantza argitu zituzten, besteak beste.

Bigarrenik, **iruzurraren kontrako borroka** leku esanguratsua hartu zuen Departamentu horretan kodetu ziren ekarpenen artean. Zehazki, etxebizitzaren sektorean edo lehen sektorean iruzurraren kontrako borroka premiazkotzat jotzen duten eskaerak izan dira hizpide.


Azkenik, ekarpenetako batean bilketaren banaketari buruzko informazioa eskatzen zen.

7. BIDE AZPIEGITUREN DEPARTAMENTUA (26 ekarpen)



Departamentu honetara bideratutako ekarpenetan, berariazko **hobekuntzak eskatu zituzten errepideen sarearekin lotuta** (N1-A15, Ermua saihesbidea, A8...) Halaber, beste lotura batzuk edo **lotura hobeak** eskatu zituzten, baita **bideak egokitzea eta lurzoruaren mantentze-lanak** egitea ere. Bigarren mailan, eragileek ere seguruak ez diren edo hondatuta dauden hainbat **biribilgune, puntu beltz eta bide eremu** identifikatu zituzten, eta Aldundiari eskatu diote esku hartzea. Azkenik, hainbat ekarpenen bidez, **bidesarien kostua murriztea** edo Gipuzkoaren, Bizkaiaren eta Arabaren arteko ordainketen **tarifa bateratzea** eskatu zuten.

8. GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA (40 ekarpen)



Aurrekontu Irekiak 2018 partaidetza prozesuan bezala, Gizarte Politiketako Departamentua izan zen ekarpen gehien lortu zituen bigarren departamentua, proposatutako kodetzearekin bat etorriz. Zehazki, hainbat kolektibok adierazi zuten Foru Erakundearen laguntza jasotzeko beharra, bereziki, gauzatzen duten eginkizunari dagokionez. Gainera, **boluntarioen** nahiz Gipuzkoako elkarten egituraren eginkizunari balioa ematea eskatu zuten.

Bigarrenik, jasotako hainbat ekarpenen bidez, Gipuzkoako **adineko pertsonentzako eta mendekotasuna duten pertsonentzako egoitza zentroak eta zaintzarako espazioak** hobetzea, handitzea edo egokitzea eskatzen zen. Zerbitzu ratio eta arreta egokirik ez duten zenbait udalerrri eta eskualde identifikatu zituzten, eta kezka horien berri eman zuten Aldundiko ordezkari politikoekin eginiko hainbat topaketatan. Era berean, balioa eman zitzaion Foru Erakundeak proposamen orokor eta espezifikoaren bidez ematen dituen **gizarte zerbitzuak egokitzeko eta hobetzeko** beharrari: garabi zerbitzua adineko pertsonentzat, gizarte jangela gehiago eta administrazioek inplikazio handiagoa izatea herritarren oinarrizko beharrianak betetzean.


Hirugarrenik, **gizarte prestazioei** buruzko hainbat gomendio eta aipamen jaso zituzten. Kasu honetan, gehienak DSBEri eta pentsioei buruzkoak izan ziren, biak ere Eusko Jaurlaritzaren eskuduntzakoak. Hala ere, politika sozialetara bideratutako ekarpenak ere jaso zituzten. Aldundiak eginkizun nagusia hartzen du bere gain arlo horretan. Hainbat eragilek helarazi zuten prebentzioaren inguruko gastua handitu behar zela, ikuspuntu sozialetik begiratuta, eta zahartze



aktiboa eta jasagarria bultzatu eta sustatu behar dela, estratu zaugarrietarako laguntzak handitu behar zirela edo Aldundiaren eta udalen artean hitzarmenak proposatu beharra dagoela.

Laugarrenik, **gizarte langileen eginkizuna** ere nabarmendu zuten Topaketetan. Inbertsio handiagoa eskatu zuten pertsona horiek kontratatzean, baita langile horien kualifikazio, prestakuntza eta ordainsarien inguruko beste neurri batzuk ere. Azkenik, hainbat eragilek helarazi zuten Gipuzkoako adineko pertsonentzako Kontseiluak ezartzeko beharra.

9. INGURUMENEN OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA (10 ekarpen)



Ingurumen Departamentuak modu esanguratsuan jaso zituen **hondakinak kudeatzeari** buruzko ekarpenak. Kasu honetan, erraustegiari, hondakinak kudeatzeko foru politikari edo atez ateko sistemari buruzko zalantzak argitu zituzten.

Era berean, Departamentu honetan, energiari, hondartzen garbiketari eta birziklatzea sustatzeari buruzko ekarpenak hainbat kategoriatan sailkatu zituzten.



10. BESTE BATZUK (Foru Aldundiaren eskuduntzarik gabe) (34 ekarpen)

Kategoria honetan, aktan jasotako ekarpenak sailkatu dira, nahiz eta Foru Aldundiak horien gaineko eskuduntzarik ez izan. Hala ere, Topaketak egin bitartean, gizarte eragileek helarazitako galdera, zalantza eta ekarpen guztiak jaso ziren, eta erantzun egokia ematen ahalegindu ziren, interesdunek informazioa izan zezaten, eskuduntza zer esparruren gainean zuten kontuan hartu gabe.

Azkenik, nabarmentzekoa da atal honetan jasotako, kodetutako eta kuantifikatutako ekarpen guztiak udal esparruko ekintzekin, politikekin eta programekin lotuta daudela.



5. ONDORIOAK


Foru Aldundiko ordezkari politikoekin eta gizarte zibilarekin izandako topaketetan, partaidetzarako espazioak jorratzen dira. Hala, entzute aktiboaren bidez hainbat zalantza argitzen dira, arazoak jasotzen dira eta lurraldeko gizarte ordezkariak egunez egun aurre egin beharreko erronkak eta zailtasunak konpontzeko ekarpenak bideratzen dira. Gainera, topaketak erantzukizun, gardentasun eta kontu emakida gisa egituratuta daude; izan ere, informazioa zuzenean ematen da gizarte ordezkarien eta politikarien artean. Horrenbestez, maiatzean eta ekainean 500 eragilerekin baino gehiagorekin eginiko 28 topaketei esker, ordezkari politikoek Gipuzkoako gizarte egituraren errealitatea eta eguneroko bizimodua ezagutu ahal izan dute. Halaber, ezin erabilgarriagoa izan da bertaratuentzat; izan ere, gizarte zibilak aurre egin beharreko erronkekin loturiko zalantza zehatzak eta galdera partikularrak argitu dira. Kasu honetan, gaineratu behar da aktan jasotako ekarpen guztiak kodetu eta kuantifikatu ostean, Foru Departamentuei helarazi zaizkiela. Hala, kasu bakoitzerako, bana-banako erantzuna eta proposamena jaso ahal izan da Itzulketa fase berrian.

Ekimen honek izandako arrakasta jasotako emaitzetan ere ikus daiteke. Gizarte eragileen kezka nagusiak bat datoz Aurrekontu Irekiak 2018 partaidetza prozesuan adierazitakoekin. Hau da, gizarte zibilak (topaketak) eta herritarrek, banako mailan (Aurrekontu Irekiak 2018), esparru hauek identifikatzen dituzte aipamen gehien jaso dituzten alderdi gisa: **Sustapen Ekonomikoa, Landa ingurua eta lurralde oreka, eta Gizarte Politikak**. Horrek egiaztatzen du gizarteak oro har politika aktiboetan aurrerapausoak eman beharra dagoela ikusi duela. Hala, garapen ekonomiko esanguratsua, berritzailea eta egonkorra sortuko dute, eta kalitateko eta herritar guztien eskaeretara egokitutako gizarte babesa izatea funtsezkotzat jo da.

Elkarrizketa zuzenaren bidez jakinarazitako informazioari esker, hain justu, herritarren beharrezanean erantzungo dien Gipuzkoa guztion artean eraiki ahal izango da. Ekimen horretan, aurreko ekitaldian eginikoarekin alderatuta, nabarmen handitu da topaketen kopurua (aurreko urtean baino 15 topaketa gehiago). Hala, agerian geratzen da partaidetzarako tresnen bidez posible dela Foru Administrazioa eta gizarte zibila hurbiltzea. Hori dela eta, balio handikoa da, batetik, Aldundiak Gobernu Irekiaren ereduaren alde ematen duen bultzada, eta, bestetik, guztion artean eta modu arduratsuan lurraldearen etorkizuna eraikitzeko estrategia.

6. EKARPENEN ZERRENDA

TOPAKETAK (282 EKARPEN)





1. DIPUTATU NAGUSIA (5)

1.1 Euskara (3)

- *(Orio) Euskaren alde lan egiten dutenentzako, diru-laguntzak handitu*
- *Euskara ikasteko laguntzak*
- *(Lezo) HABEren eredia berrikustea, ez baitu errazten euskara ikastea. Berrikusi egin daiteke?*

1.2 Etorkizuna Eraikiz (1)

- *(Orio) ETORKIZUNA ERAIKIZ parte hartzea, hezkuntza esparruan*

1.3 Bizikidetza (1)

- *(Irun) GFAk bultzatutako plana, Gipuzkoan ijitoen benetako integrazioa bultzatzeko tresna gisa*

2. KULTURA, TURISMOA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA (30)

2.1 Kultura (11)

- (Astigarraga) Kultura Zuzendaritzarekin ikusten ditugu (Gipuzkoako Sagardogileen Elkarte) aukerak elkarlanean aritzeko. Horren beharra eta nahia daukagu. Kultur zuzendaritzarekin biltzeko nahia daukagu kulturarekin lotuta dauzkagun proiektuak azaltzeko
- (Antzuola) Orain dela 3 urte, Kutxabank-ek kultura ekitaldiak antolatzeke diru-laguntza eman ziela aipatu du lagun batek. Aldundiak, diru-laguntzak berreskuratzeko lagundu ahal diogu?
- (Azkoitia- BIZILORE ESKOLA AKTIBOA) HAZITIK irabazi asmorik gabeko kooperatiba dela esana dugu, eta hala da. Bertako partaide garenok egin dezakegun guztian dihardugu lanean: obran, garbiketan, hezkuntza proiektuan... Edonola ere, egitasmo handia da, eta burura eramateko diru iturri berriak behar-beharrezkoak ditugu. Guretzako momentu hau oso garrantzitsua da, eskola homologazio bidean dagoelako. Bete-bete sinesten dugu gure egitasmo orokorrean, bai eta eskolarenean ere, zehazki. Bihotza, burua eta eskuak jarriak ditugu proiektu honetan, baina, zoritxarrez ez da nahikoa. Eskolari dagokion baimen administratiboa eskutan dugunean, horren obra osorik egiteko dugu, beste hainbat gauzaren artean. Lau haizetara zabaldu nahi ditugu ereindako haziak, Azkoititik abiatuta, Gipuzkoako lurralde osora, eta Euskal Herriko bazter guztietara iritsiz. Horregatik da gure eskaintza hain zabala: 2-12 urte bitarteko umeentzako eskola aktiboa nahi duten familiek gozatzeko modukoa, eguneroko eta asteroko eskaintza herriko zein bailarako pertsonen gozatzeko modukoa da, udalekuak Gipuzkoako eta Euskal Herri osoko umeek gozatzeko modukoa, hileroko hitzaldi eta formazioak gaian interesa duen go gaitu.
- (Deba) Beste antzerki elkarteekin harremanak sortzea. Nola bideratu ahal dugu? Tabakalera izan liteke gune egokiena?
- (Deba) Antzoki bat behar dugu; ez daukagu leku egokiena kultur ekitaldiak antolatzeke, ezta kultura jarduerak ere. Gaur egun, proiektua definitzen ari dira. Ildo berean, antzerkia egiteko toki bat behar dugu esan du, Aldundiko lehentasun bat izatea.
- (Deba) Herri txikiak kontuan hartzen, sare kultur bat beste kultur esparru batzuetarako sortzea
- (Elgoibar) Tabakalera, Inbertsio errentagarria izan da?
- (Oiartzun) Oiartzungo Euskal dantzak taldea formalizatzea. Oiartzunen 61 haur euskal dantzak aritzen dira baina ez dago talderik formalizatuta.
- (Oiartzun) Flauta taldea, udaletxearekin batera, Musika Eskola proiektuan lantzen ari dira.
- (Oiartzun – Mendizabal) Artikutzako trenaren historia eta arrastoen inguruko liburua ari gara prestatzen eta horrekin batera mendizaletasun herrikoia zabaldu nahi dugu, trenaren ibilbideak ezagutarazteko.
- (Zumaia) Antzerki ikastaroak eta ekintza kultural gehiago: laguntza motaren bat antzerki ikastaroak egiteko eta udalerrian jarduera kultural handiagoa egiteko

2.2 Kirola (11)

- (Azkoitia) Beste kirol diziplina batzuei diru-laguntzak ematea, sustatzea eta hedatzea.
- (Oiartzun) Atletismo pista entrenatzeko eta tresnak entrenatzeko behar dira.



- (Oiartzun) *Konpetizioetara joateko, erraztasunak ematea. Konpetizioetara joaten direnean, taldeak Oarsoaldetik ez dauka autobusik, ezta garraio publikorik ere, esaterako, Irunera joateko*
- (Oiartzun) *Eskola Kirola, sakontzea eta sustatzea. Beste kirol diziplina batzuk bultzatzea eta bermatzea, futbola ez ezik, beste kirol batzuk ere bai.*
- (Oiartzun) *Politika Kirola, lantzea eta garatzea*
- (Oiartzun – Mendizabal) *“Txost Oiartzungo” pilota kluba: talde honek euskal pilotaren ondare diren joko zuzenen (bote luzea, errebotea, pesaka...) azterketa eta kirol berreskuraketa plana aurkeztu nahi da*
- (Oiartzun) *Mendi Elkarreentzako diru-laguntzak zabaltzea. (Oarsaldetarrontzat Nafarroa eta Iparraldea haien inguru naturala dela aipatu du) hori dela eta diru-laguntza zabaltzea eta malgutzea, bai Nafarroarantz, bai Iparralderantz.*
- (Pasaia) *ALTZAko kiroldegia*
- (Zumaia) *GFAtik, ba al dago irteerak egiteko diru-laguntzarik?*
- (Zumaia) *Moduren batean ziurtatzea eta/edo konpentsatzea Oinarritzko Kirolean boluntario lanetan ari diren pertsonen.*
- (Zumaia) *Entitateak harrobirik sortzen ez duten kirol klubei ematen dizkien ekarpenak zalantzan jartzen dira, gizonen saskibaloia eta eskubaloia taldeen adibide gisa.*

2.3 Turismoa (7)

- (Astigarraga) *Nahiz eta sagardoari esker Gipuzkoako turismoa bultzatu, ezin dugu jaso diru-laguntzarik. Nola lortu ahal ditzakegu diru-laguntzak? Nondik bideratu ditzakegu?*
- (Goieki – Ordizia) *Ekonomia sustatzeko turismo politika garatzea.*
- (Goieki – Ordizia) *Aldundiarekin hitzarmena garatzeko, baliabideak behar dituzte.*
- (Goieki – Ordizia) *Barneko turismoa bultzatzea eta erakundeen arteko konponbidea lortzea*
- (Idiazabal) *Landa inguruan bizi diren eta horiek bisitatzen dituzten pertsonen artean elkarbizitza sustatzeko eta bermatzeko ekimenak.*
- (Lezo) *Zer egin daiteke Donostiako turismoaren masifikazioari aurre egiteko?*
- (UGGASA) *Adineko pertsonentzako turismo programa bultzatzea*

2.4 Liburutegia (1)

- (Elgoibar) *Donostiako liburutegien ordutegia zabaltzea*



3. GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUA (14)

3.1 Administrazio izapideen kudeaketa hobetzea (8)

- (Andoain) Diru-laguntzak eta administrazio prozedurak eskatzeko izapideak arintzea.
- (Azpeitia) Administrazioaren desburokratizazioa bultzatzea eta irizpide bakarra udaletxetan tramiteak errazteko
- (Deba) Irizpideak aldatzea diru-laguntza eskatzeko, Deba herri txikia da eta ezin ditu bete. Irizpide berrien zerrenda prestatu dute eta Aldundiari bidaliko diote.
- (Goieki – Ordizia) Diru-laguntzak eskaera argitaratzea (Energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatiba, GoiEner). Diru-laguntzen sailkapena ez da agertzen argitasunaz eta ez dakigu nora bideratu eta non eskatu diru-laguntzak
- (Legazpi) Administrazio izapideak erraztea. Batzuetan, izapideak bikoizten dira, eta dokumentazio berdina igortzen zaio Eusko Jaurlaritzari eta Foru Aldundiari.
- (Lezo) Administrazio Elektronikoa. Gutxi barru administrazioaren eta herritarren artean ezarriko den bide elektronikoaren harreman berriaren inguruko kezka; adineko zenbait pertsona daude eta foru erakundearen laguntza behar dute edozein administrazio izapide egiteko.
- (Oiartzun) Burokrazia erraztea; diru-laguntza eskatzeko.
- (Zumaia) Administrazio izapideak arintzea

3.2 Ekintza publikoak eta pribatuak (2)

- (Elgoibar) Ekintza publikoak eta pribatuak bultzatzea eta sustatzea.
- (UM Arrasate) Publiko-pribatu kolaborazioa apustu on bat da eta bultzatzen jarraitu behar da.

3.3 Partaidetza (2)

- (Irun) Ijito herriak foru erakundeak antolatzen dituen eztabaida irekietan parte hartzea bultzatzea.
- (Irun) GFArekin lan egitea eta partekatzea partaidetza prozesuak ebaluatzen adierazleak eta irizpideak; adierazleak ez ezik, irizpide kuantitatiboak eta kualitatiboak ere bai.

3.4 Elkarrekin programa (1)

- (Tolosa) Paperik gabeko immigranteak. Pertsona horiek 3 urte baino gehiago daramate Tolosaldean erroldatuta, eta oraindik ez dute erregularizatu egoera, eta ez dituzte kontratatzen paperik ez dutelako. Nork du ELKARREKIN programan sartzeko eskubidea?

3.5 Gizarte babesa (1)

- (Lezo) Gizarte babesean, zer dela-eta desegin dira mendietako esku-hartze unitateak eta kirol arriskueta larrialdi unitateak?

4. EKONOMIA SUSTAPENEN, LANDA INGURUNEN ETA LURRALDE OREKAKO DEPARTAMENTUA (77)

4.1 Industria (15)

- *(Astigarraga) Sagardo sektoreak industriaren eta teknologiaren beharra ere badugu aurre egiteko. Etorkizunari begira, teknologia, 4.0. industria prestakuntza eta makina berriak, besteak beste, behar ditugu. Diputazioak behar hauek begiztatzeko dituzte inbertsioak egiteko laguntzak behar ditugu*
- *(Elgoibar) Prestakuntza industriara bideratzea.*
- *(Elgoibar) Debarrenean, Parke Teknologikoa eraikitzea, Eibarreko eta Elgoibarreko eskualdean bultzada emateko eta industria indarra emateko*
- *(Elgoibar)*
- *(Elgoibar) Aurrez aurreko unibertsitate sistema ez da bateragarria enpresako eta/edo fabrikako profesionalen lanarekin. Hori dela eta, proposatzen da Fabrikazio Aurreratuan online prestakuntza eskaintza sortzea eta garatzea, profesionalek ere sarbidea izan dezaten.*
- *(Elgoibar) ETEak. ETEei laguntzea Industria 4.0 esparruan, eta ez bakarrik kooperatibei.*
- *(Goieki – Ordizia) Industrialdean kontseilu bat eragitea*
- *(Goieki – Ordizia) OGEI: Zerbitzu integrala emateko aholkularitza behar dute.*
- *(Goieki – Ordizia) Administrazioek ekosistema bat bultzatzea fabrikazioan eta industria aurreratuan.*
- *(Goieki – Ordizia) 4.0 Industriarako profilak identifikatzea.*
- *(Goieki – Ordizia) 4.0 Industrian ezagutza sarea sortzea. Ezagutza partekatzea Fabrikazio eta Industria Aurreratuan.*
- *(Tolosa) Enpresa txikiek Industria 4.0 prestakuntza behar dute, bestela, aurrerapenetik kanpo geratuko dira.*
